



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**GRADU AMAIERAKO
LANAK SOZIOLOGIAN**
Ikerketa sozial aplikatuak
egiteko, gidatzeko eta
aurkezteko argibideak

Oihane Garcia
Marta Luxán Serrano

**EUSKARAREN ETA ETENGABEKO
PRESTAKUNTAREN ARLOKO
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**


Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko
Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

Egileak: Oihane García eta Marta Luxán

Euskara errektoreordetzaren Sare argitalpena

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea



AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	7
LEHEN ATALA. GRAL-AREN NONDIK NORAKOAK.....	13
1. GAIA. GRALak Soziologian.....	15
2. GAIA. GRALaren planifikazioa, tutoretza-prozesua eta lehen zirriborroa.....	20
3. GAIA. GRALaren alderdi formalak.....	25
BIGARREN ATALA. GRAL-AREN LANKETA ETA AURKEZPENA ATALEZ ATAL.....	33
4. GAIA. GRALetan laburpena eta gako-hitzak zergatik txertatu.....	35
5. GAIA. GRALaren sarrera nola egin.....	36
6. GAIA. GRALaren planteamendu teorikoa nola eraiki.....	40
7. GAIA. GRALaren testuinguruan zer plazaratu.....	46
8. GAIA. GRALaren helburuak eta hipotesiak nola formulatu.....	49
9. GAIA. GRALaren planteamendu metodologikoa nola garatu.....	55
10. GAIA. GRALaren ikerketaren emaitzak nola aztertu.....	60
11. GAIA. GRALaren ondorioetan zer plazaratu.....	66
12. GAIA. GRALaren bibliografia nola eraiki.....	69
13. GAIA. GRALaren eranskinetan zer jaso.....	72
14. GAIA. GRALaren ahozko aurkezpena nola egin.....	74

ERANSKINAK.....	79
1. ERANSKINA. Originaltasun konpromisoaren agiria.....	81
2. ERANSKINA. Bibliografia-gestoreak.....	83
3. ERANSKINA. Zuzendariaren txostenaren eredia.....	85
4. ERANSKINA. GRALa ebaluatzeko eredia Soziologia Graduan	87
5. ERANSKINA. GRAL-en epaimahaia. Ikerketa sozial aplikatuak ebaluatzeko txosten-eredua Soziologia Graduan eta Komunikazio Zientzietan.....	91
BIBLIOGRAFIA ETA EUSKARRIAK.....	95
EGILEEI BURUZKO OHARRA.....	101

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA. GRAL txostenaren egitura orokorra ikerketa sozial aplikatua eta atalez atal aurkeztutako informazio mota.....	18
2. TAULA. Lanerako kronograma-proposamena. Lan zehatzak eta tutoretza-saioak (TS) hileka.....	21
3. TAULA. Plagiotzat jotzen diren ekintzak.....	27
4. TAULA. Planteamendu teorikoa eraikitzekeko urratsak.....	43
5. TAULA. Ikerketaren helburuak formulatzean egiten ditugun ohiko akatsak.....	52
6. TAULA. Ikerketaren emaitzak aurkeztekeko urratsak.....	61
7. TAULA: Informazioa aurkeztekeko bideak: aipuak.....	62
8. TAULA: Informazioa aurkeztekeko bideak: taulak.....	62
9. TAULA: Informazioa aurkeztekeko bideak: mapa-kontzeptualak.....	63
10. TAULA. Bukaerako bibliografia osatzean harvard sisteman onartutako ohiko laburtzapenak.....	70
11. TAULA. Ahozko aurkezpena prestatzekeko urratsak.....	75

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA. Ideiak antolatzekeo proposamena.....	30
2. IRUDIA. Ikerketaren eraikuntza ikerketa-prozesuan zehar.....	38
3. IRUDIA. Teoria, metodologia eta helburuen arteko loturak.....	50

FITXA-EREDUEN AURKIBIDEA

1. FITXA-EREDUA. Gradu-amaierako lana soziologian (ikerlan-proposamena)..	24
2. FITXA-EREDUA. Erreferentzia bibliografikoen analisisa egitekeo fitxa-eredua..	45

HITZAURREA



Kaixo lagun hori,

Eskuartean duzun ikasmaterial honetan **Soziologia arloan Gradu Amaierako Lanak egiteko, aurkezteko eta gidatzeko orientabide zabalak** bildu nahi izan ditugu.

Gradu Amaierako Lanak (GRAL, aurrerantzean) 2013-2014 ikasturtean UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko graduko ikasketa-planetan txertatu ziren. Ordutik, titulazioa eskuratzeko nahitaezkoa da ikasle bakoitzak banakako jardueran eta zuzendari bat edo gehiagoren gainbegiratzepean GRALa egokiro garatzea eta defendatzea.

Ikasketa plan berriek i(ra)kas-behar eta erronka berriak ekarri ohi dizkigute. Horrela gertatu da oraingoan ere. Ikasmaterial hau gauzatu dugun irakasleei sarritan egokitu zaigu GRALen tutoreak eta epai-mahaikideak izatea eta, gure ikuspegi anitz eta ikerketa eremu zehatzetatik, askotan erantzun diegu galdera, zalantza eta kezka berdintsuei. Hain zuzen ere, zeregin horietan identifikatutako zailtasunak eta oztupoak dituzu gida honen sorburua.

Zein dira, oro har, Soziologia arloan GRALak egiteko eta gidatzeko bidean topatu ditugun zailtasun nagusiak? Ikasleen aldetik ikerketa prozesua hasi, modu egokian garatu eta burutzeko eragozpenak sumatu ditugu maiz; hau da, ikasleek graduan zehar landutako edukiak eta trebeziak era osatu eta koherente batean aplikatzeko zailtasunak dituztela. Azpimarratzekoa da oztupoak ez ditugula soilik edukien garapenean eta ikerketa prozeduran identifikatu. Unibertsitate eremuan egin eta aurkezten den lan akademiko baten alderdi formalak ezezagunak dira askotan, eta GRALetan eskakizun hauek betetzeko arazoak uste baino gehiago direla ikusi dugu.

Bestetik, irakasle on aldetik, ez ditugu zeregin berri hauei taxuz heltzeko tresnak eskura izan, eta, askotan noraezean ibili gara. Gauzak horrela, tutoretza-prozesuan inprobisatzea edo ez dagozkigun lanak gure gain hartzea gure artean zabaldu diren

praktikak dira. Horregatik guztiagatik, **ikas-prozesu autonomoak bultzatu eta tutoretza lanak erraztea** duzu gida honen xedea.

Soziologia Graduan egin daitezkeen GRAL mota ezberdinen artetik (azterlan teorikoak edo enpirikoak eta jendarte esku-hartze politiken diseinua, analisia eta ebaluazioa) ikasmaterial honetan **ikerketa sozial aplikatuak** hartu ditugu hizpide. Kontuan hartu dugu aurkezten diren GRAL gehienak azterlan-enpirikoak direla, eta guk geuk ere ikerketa arlo hauetan egin dugula ibilbidea bereziki.

Beraz, Soziologia arloko GRAL aplikatuez arituko gara, baina, era berean, ikerketa soziologikotik haratago joan nahi izan dugu. Beste titulazio eta jakintza arloetan jarduten diren **balizko hartzaile askori** zuzentzen diogu ikasmateriala, hala nola, Gizarte Zientzietan, Gizarte Langintzan, Giza Zientzietan eta Komunikazio Zientzietan ikerketa sozial aplikatueta jarduten diren ikasle, irakasle nahiz GRALen tutoreei bereziki, eta ikerketa arlo honetan interesa duen orori.

Gainera, ikasmateriala **euskaraz** sortzea erabaki dugu gaur gaurkoz GRALa euskaraz egiteko eskaintza zabala den arren, oraindik ere ikerketa eta irakaskuntza eremuetan gure jarduna euskaraz garatzeko euskarriak eskasak direlako. Hauxe duzu gure aletxo.

Egiturari dagokionez, gida honek **14 gai ditu, bi atal nagusietan** banatuta. Lehen atalean GRALaren eskakizun nagusiak zein diren laburbildu ditugu. Gainera, ikerketa sozial aplikatuaren planifikazioa eta tutoretza-prozesuaren gaineko orientabide orokorrak aurkituko dituzu.

Bigarren atalean GRALaren kapitulu bakoitza egiteko, aurkezteko eta gidatzeko argibideak luzatu ditugu. Horretarako ikerketa sozial aplikatuaren txostenen ohiko egiturari oinarritu gara, ikerketa jarduna bera prozesu bat dela azpimarratuz eta atalen arteko loturak nabarmenduz beti ere. Atal honek barnebiltzen dituen 11 gai ezberdinak prestatzeko GRALaren kapitulu bakoitzaren elaborazioan ikasleek plazaratutako ohiko galderei erantzun diegu, hau da:

- GRALaren kapitulu bakoitzean zer lantzen den eta zertarako; zein diren jorratzen diren eduki edo alderdi zehatzak; zein lantzen den informazio mota.
- Zein diren GRALaren beste kapituluekin ezarri behar diren loturak.
- Gai bakoitza prestatzeko zein diren eginkizun nagusiak eta berauek asetzeko nola eman urratsak.
- Txostenean nola jaso informazioa eta zein izaten den idazketa-estiloa.
- Kapitulu bakoitzaren elaborazioan zein diren ikasleen artean sustatzen diren era askotako gaitasunak (ezagutzazkoak, prozedurazkoak nahiz jarrerazkoak)
- Ikerketa-prozesuaren momentu ezberdinetan, tutoretza lanak errazteko zenbait aholku.

Halaber, bigarren atal honen bukaeran (14. gaian), GRALaren ahozko aurkezpena egiteko orientabide zehatzak topatuko dituzu.

Arestian aipatu bezala, ikasleei nahiz tutoreei zuzendutako lanabes praktikoa eta erabilgarria prestatu nahi izan dugu. Horri begira, **era askotako euskarriak** (grafikoak, irudiak, taulak eta fitxa-ereduak) sortu eta bi atal nagusietan txertatu ditugu. Gida honen eranskinetan, berriz, dokumentazioa osagarria topatuko duzu, ikastegiak eskainitako agiriak eta GRALak ebaluatzeko ereduak, besteak beste.

Atalez atal, gai bakoitzaren prestaketan GRALen tutore eta epaimahaikide bezala izan dugun esperientzian oinarrituta bagara ere, orientabide zabalak eskaini nahi izan ditugu. Badoa aurretik ez dugula eredu hertsia eta zurrunetan sinesten; eskuartean duzun materiala tresna baliagarria izateko, zuen ikerketa behar eta erritmoetara egokitzea funtsezkoa dela uste dugula.

Hain zuzen ere, GRALak egiteko eta gidatzeko modu asko badirelako, gida honen lehen zirriborroa UPV/EHUko beste lau irakasleekin kontrastatu eta beraiek egindako ekarpenak jasotzen ahalegindu gara. Matxalen Legarreta, Zesar Martinez, Izaro Gorostidi eta Ane Larrinaga izan ditugu abentura honetan bidelagun. Gainera, testua zuzentzeko UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzako Iñigo Roque Eguzkitzaren laguntza izan dugu. Lerro hauetatik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu guztioi. Mila esker!

Oihane Garcia eta Marta Luxán Serrano

Soziologia 2 Saila

LEHEN ATALA

GRAL-AREN
NONDIK
NORAKOAK

1. GAIA. GRAL-AK SOZIOLOGIAN

Azalpena, helburuak eta gaitasunak

2013-2014 ikasturtean UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak eskaintzen dituen gradu guztietako ikasketa-planetan txertatu zen GRALa, baita Soziologiako Graduan ere. Titulazio bakoitzaren berezitasunak berezitasun, 2015eko martxoaren 26an onartutako *Euskal Herriko Unibertsitatean gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiari jarraikiz*, hauxe da GRALen xede nagusia:

“GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren **datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari** begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko **gogoeta egin eta iritzia eman** dezan eta gogoeta eta iritzi horiek **kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan** daitezen” (UPV/EHU gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia, 2. artikulua.– Gradu Amaierako Lanaren izaeraz) (letra lodia gurea da)

UPV/EHUko GRALetan, oro har, graduiko ikas prozesuan zehar jasotako eduki, gaitasun eta trebetasunak bildu, aplikatu eta garatu nahi dira. Horrela, bada, GRALa egiteko orduan titulazioko gaitasunei erreparatzea komeni da. Soziologia Titulazioari dagokionez, 10 dira zehaztutako gaitasunak.

SOZIOLOGIA TITULAZIOKO ZEHARKAKO GAITASUNAK

- Etorkizun profesionalari begira, argudiatzeko eta analisi soziologikoak egiteko garaian zorrotasun intelektual eta etikoa erabiltzea.
- Arazoei eta behar sozialei buruzko informazioa era sintetikoan analizatzea, genero, klase eta etnia desberdintasunei arreta berezia jarritz.
- Datuen eta praktika sozialen gaineko jarrera kritikoa garatzea.

SOZIOLOGIA TITULAZIOKO GAITASUN OROKORRAK

- **Antolaketa egitura publiko eta pribatuetan gertatzen diren oinarrizkoak prozesuak eta beharrak identifikatzea eta analizatzea.**
- **Arazo sozial nabarmenen oinarrizko osagarriak identifikatzea eta definitzea.**
- **Erakunde publiko eta pribatuetan kudeaketa-estrategiak lantzea eta garatzea.**
- **Erakunde publiko eta pribatuetan, politikak eta hezkuntza eta prestakuntza programak diseinatzea eta ebaluatzea, bakearen eta balio demokratikoren kultura sustatzeko.**
- **Ikerkuntza soziologikoko txosten bat lantzea eta aurkeztea.**
- **Planteatutako helburuak kontutan harturik ikerkuntza soziologiko bat planifikatzea eta egitea.**
- **Politika publikoko eta esku-hartze sozialeko proiektuak eta beraien emaitzak diseinatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.**

Iturria: Gizarte eta Komunikazio Zientzien web-orria.

Titulazioko gaitasunetan zehazten den bezala, ikerketa soziologiko bat egiteko eta aurkezteko gai izan behar du Soziologian Graduatuak. Hain zuzen ere, GRALean **jatorrizko proiektu, memoria edo azterlan bat egitea** eskatzen zaizu, **bi lan mota** hauetako bat garatuz: 1) gizarte ikerketa lan teorikoa edo/eta enpirikoa edo 2) programa edo gizarte esku-hartze politika baten diseinua, analisisa eta ebaluazioa. Dokumentu honetan lehen aukerari erreparatuko diogu soilik, eta, zehatzago, gizarte ikerketa lan enpirikoaren garapenenari.

Unibertsitatearen eremuan aurkezten den lana izanik, GRALak baditu jarraitu beharreko irizpide eta prozedura jakin batzuk. Ikasturte bakoitzaren informazio eguneratua eta data zehatzak fakultatearen web-orrian daude eskura. Lanari ekin aurretik horiek guztiak ezagutzea komeni da. Gure aldetik, GRALaren **ezaugarri orokor eta eskakizun nagusi** bakar batzuk zerrendatu baino ez dugu egingo:

- GRALean ikaslea **banakako jardunean** arituko da, **zuzendari baten edo gehiagoren gainbegiratze-lanarekin**. Ikastegiak tutoreak esleituko ditu GRALean matrikulatutako ikasleen artean.
- GRALak **12 ECTS kreditu**ko balioa du, ikaslearen **300 lan-orduren** parekoa.
- GRALaren txostena bukatzean, ikasleak **defentsa-eskaera** egin eta lana ADDI plataformara igoko du. Tutoreak **lanaren gaineko txostena** idatzi (ikus 3. eranskina) eta GAUR plataformara igo behar du.

- GRALa **jendaurrean defendatu** beharko du ikasleak Soziologia Sailak esleitutako epaimahaiaren aurrean. Ikastegiak finkatuko ditu defentsa egiteko data, ordua eta gela.
- GRALa **norberak egindako lan originala** da eta **jabetza intelektualari buruzko legeak babesten** du. Besterik zehaztu ezean, ikaslearen onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lanaren egilea da.
- Titulua eskuratzeko nahitaezkoa da GRALa egokiro egitea.

Ikerketa sozial aplikatuaren txostenaren egitura orokorra

Arestian aipatu bezala, GRALean proiektu, memoria edo azterlan bat egokiro egitea eskatzen zaizu. **Txostenaren egitura edo bizkarrezurra hasieratik finkatzea** lehen egiteko garrantzitsua duzu, zeren, *lanaren osotasuna* irudikatzeaz gainera, atal bakoitzean jorratuko den *informazioa antolatze*ko eta *lana bera planifikatze*ko modu aproposa da.

Alde horretatik, kontuan izan behar duzu atal bakoitzak *azterlanaren esparru eta behar edo eginkizun konkretu* bati erantzuten diola. Informazioa mailaka eta modu koherentean aurkeztuko duzu, hortaz.

Fakultateak UPV/EHUko Soziologiako GRALen irakaskuntza gidan ikerketa-lanen egitura orokorraren eredu bat eskaintzen du. Hala ere, tutoreek eta ikasleek txostenaren egitura lanaren beharretara moldatzeko aukera dute.

Aipatutako irakaskuntza-gidan oinarrituz, ondorengo taulan laburbiltzen dugu, orientazio moduan, nolakoa den ikerketa sozial aplikatuaren azken txostenaren egitura orokorra¹, GRALaren kapitulu bakoitzak erantzun beharreko galdera nagusiak nahiz informazio mota zehaztuz. Hauxe izango da, gainera, ikasmaterial honen bigarren atala prestatzeko erabili dugun egitura orokorra:

¹ Soziologiako GRALen irakaskuntza-gidan zehazten den egiturarekin alderatuz, bi dira proposatuko egokitzapen nagusiak. Lehena, GRALetan testuinguruaren atala gehitzea, ikerketa sozial aplikatuaren beharrezkoa izaten baita lana denboran zein inguru geografiko edo kulturean kokatzea. Bigarrena, ikerketa-helburuak planteamendu teorikoaren eta testuinguruaren kapituluaren ostean aurkeztea. Izan ere, aurrekari teorikoetan nahiz testuinguruan oinarritzen gara ikerketaren helburu eta xedek zehazteko.

1. TAULA. GRAL TXOSTENAREN EGITURA OROKORRA IKERKETA SOZIAL APLIKATUAN ETA ATALEZ ATAL AURKEZTUTAKO INFORMAZIO MOTA		
GALDERA NAGUSIAK	EGITURA OROKORRA	INFORMAZIO MOTA
<i>Zer ikertuko dut? Zergatik? Zertarako?</i>	SARRERA	Ikerketaaren aurkezpena eta justifikazioa. Ikertzailearen motibazioa. Ikerketaren planteamendua, prozesua, markoa.
<i>Zer egin da gaiaren inguruan orain arte? Zein dira ekarpen teoriko eta ikerketa-emaitza nabarmenak?</i>	PLANTEAMENDU TEORIKOA	Gaiaren bilakaera eta egungo egoera. Ikuspegi teorikoak, kontzeptu eta kategoria nagusiak.
<i>Zein da aztertuko duzun denbora eta inguru geografiko edo kultural zehatza?</i>	TESTUINGURUA	Bilakaera sozio-historikoa eta gertakizunak. Bigarren mailako datuak (legediak, datu demografikoak...)
<i>Zein dira azterlan honen bidez lortu nahi ditudan emaitzak? Zein dira ikerketa honen bitartez erantzun nahi ditudan galderak?</i>	HELBURUAK	Helburu orokor eta espezifikoak. Ikerketa-galderak. Hipotesiak (halakorik egotekotan).
<i>Nola lortuko ditut plazaratutako helburuak? Zein dira erabiliko ditudan tresnak?</i>	METODOLOGIA ETA TEKNIKAK	Metodologiaren aukeraketa eta justifikazioa. Tekniken aukeraketa eta deskribapena. Aldagaien operazionalizazioa. Kale-lanaren garapenaren deskribapena.
<i>Zein dira ikerketa honetan lortu ditudan emaitzak?</i>	GARAPENA	Lortutako emaitzen analisia, interpretazioa, aurkezpena.
<i>Zein dira lan honetan egin ditudan ekarpen nagusiak?</i>	ONDORIOAK	Ekarpen eta ondorio nagusiak. Proposamenak. Burututako ikerketaren mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildo berriak.
<i>Zein dira lan hau egiteko erabili ditudan euskarriak?</i>	BIBLIOGRAFIA ERANSKINAK	Kontsultatutako liburuak, artikulak, tesiak, web-orriak... Erabilitako material osagarria (taulak, irudiak, gidoiak...)

Iturria: Norberak egina.

GRALaren azken bertsioan, testu osoan zehar **hari eroalea agertzea eta atalen artean lotura hertsia ziurtatzea** bilatuko dugu betiere. Horretarako, lana hasi eta bukatu arte ikerketaren bidez erantzun nahi dituzun galderak, lortu nahi dituzun emaitzak edo garatu nahi dituzun ideia gakoak begi-bistatik ez galtzea aholkatzen dizugu.

Azkenik, idazketaren gaineko gomendio batzuk ere eman nahi dizkizugu. Bada, informazioa mailaka eta modu koherentean aurkeztea uste baino lan zailagoa

suertatzen da. Gainera, hari eroaleari jarraitzeko ezinbestekoa da ideia gakoak errepikatzea. Txostenaren azken prestaketan agertu ohi den zalantza izaten da: *non aurkezten dut landutako informazioa?, zer egin errepikapenak ekiditeko?*

Esan bezala, txostenaren egituraren zirriborro osatua prestatzea eta tutorearekin kontrastatzea garrantzitsua izango da. Horrez gainera, ekarpen nagusiak indartze aldera, ideia bera literalki kopiatu gabe, *testuan zehar ideiak modu batean baino gehiagotan garatzea* baliagarria da. Lehen zirriborroetatik ideia gakoen garapenari erreparatzeak lanak erraztuko dizkizulakoan gaude.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. GRALaren ezaugarri eta eskakizun orokorrak zein diren presente izatea. (Fakultateko web orrialdean gaurkotutako informazioa dago eskuragai).**
- 2. Lanaren egitura aldeztatik finkatzea, eta ikasleekin partekatze adibide errealak eskura izatea.**
- 3. GRALen aurreko tutoretza-prozesuetan sortutako arazoak/erronkak gogoan izatea.**

2. GAIA. GRAL-AREN PLANIFIKAZIOA, TUTORETZA-PROZESUA ETA LEHEN ZIRRIBORROA

GRALaren eskaera, proiektu-lanaren hautapena eta esleipena

Proiektu-lanaren gaiari dagokionez, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean irakasleek proposatzen dituzte gai orokorrak, eta ikasleok proposamen horien artean aukeratu behar duzue. Ikasle bakoitzak lehentasunaren arabera ordenatutako 99 gai aukeratu ditzake. Soziologiako Gradurako **30 gai aukeratzea** gomendatzen da gutxienez. Aukeraketa GAUR-en bitartez gauzatzen da.

Proiektu-lanaren esleipena dekanotzak egiten du, horretarako ikasleok egin duzuen aukeraketa eta espediente akademikoak oinarritzat hartuz. Dekanotzak esleipenaren emaitzak GAUR-en bitartez helarazten dizkigu ikasle eta irakasleei, eta jakinarazpena jaso ondoren tutoreari idatz diezaiokezu. Lehenengo mezu horren bitartez, zure burua aurkezteaz gainera, GRALarekiko bere aurreikuspenak helarazi eta lehenengo tutoretza-hitzordua eska dezakezu.

Lana garatzeko epe eta faseak

Aurreko atalean aipatu dugunez, GRALak 12 ECTS kredituko balioa du, ikaslearen 300 lanorduren parekoa. *Aurrez aurreko orduak* ikasleak jasotako mintegiei, tutoretzei eta defentsa publikoari dagozkie. *Aurrez aurrekoak ez diren orduak*, berriz, ikasleen lan autonomoari dagozkio; ordu horietan, besteak beste, ikerketa-lana aurrera eramango duzu, idatzizko txostena egingo, eta defentsa publikoa prestatuko.

Denboraren antolaketa eta kudeaketa funtsezkoa izanik, **ikaslearen eta tutorearen artean kronograma bat adostea** dugu hasierako zereginetako bat. Hona hemen

ikerketaren faseak, tutoretza-saioak zein ikasleak aurreikusi behar genituzkeen lanorduak jasotzen dituen taula. Taula hau oinarrizko proposamena da, ikerketa-prozesu bakoitzaren ezaugarrien arabera (egutegia, ikerketa mota, ikaslearen eta tutorearen egoera) moldatu beharko dena.

2. TAULA. LANERAKO KRONOGRAMA-PROPOSAMENA. LAN ZEHATZAK ETA TUTORETZA-SAIOAK (TS) HILEKA.

Lan zehatzak eta tutoretza-saioak (*) /hilabeteak	1	2	3	4	5	6	7	Lanorduak (**)
1.TS: Ikerketa zehaztu, lan-egutegia finkatu, elkarlanerako oinarriak adostu	X							
Proposamena taxutu								20/30
2.TS: Proposamena kontrastatu eta planteamendu teorikoa egiteko aholkuak eskaini		X						
Planteamendu teorikoa gauzatu eta ikerketaren helburuak zehaztu								30/50
3 TS: Planteamendu teorikoa eta helburuak kontrastatu. Planteamendu metodologikoa aholkatu			X					
Ikerketa-planteamendua osatu: sarrera, lanketa teorikoa, helburuak, marko metodologikoa								40/60
4 TS: Lehen zirriborroa kontrastatu: ikerketa-planteamendua. Kale-lana egiteko aholkuak eman				X				
Kale-lana egin eta emaitzak aztertu								50/70
5TS: Kale-lanaren jarraipena egin					X			
Bigarren zirriborroa idatzi								40/60
6TS: Bigarren zirriborroa kontrastatu: kale-lanean lortutako emaitzak						X		
Azken txostena idatzi, eta ahozko defentsa prestatu								40/60
7 TS: Azken txostena eta ahozko defentsa berrikusi							X	
Tutoretza-saioak eta ahozko defentsa								20/30

*Tutoretza-saioak (TS); ** lanorduetan gutxieneko eta gehienezko orduak zehazten dira.
Iturria: Norberak egina.

Aipatu bezala, eskaintzen diren gaiak askotarikoak dira eta modu desberdinetan definituta daude. Sarritan, ikasleok gaia zuen interesekin lotzeko eta zehazteko ardura hartu beharko duzue. Gaia mugatzea ez da erraza, eta, nahiz eta ikerketa-prozesu osoa baldintzatzen duen ariketa izan, askotan fase honi ez zaio merezi duen garrantzia aitortzen. Gabezi hori saihesteko asmoz jarduera honi ekiteko lagungarri suerta daitekeen proposamena garatzeko fitxa-eredua eskaintzen dizuegu atal honen bukaeran. Gida honen bigarren atalean, berriz, ikerketa-prozesuaren faseak banan-banan aztertuko ditugu.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Ikerketa zientifikoaren prozesua zertan datzan ulertzea, eta errealak diren proposamen bat eta plangintza bat osatzea.
- Tutorearekin elkarrizketa etengabea oinarritutako harremana kudeatzen jakitea, eta jasotako orientabideak edo hobekuntzak kritikoki balioestea.
- Modu autonomoan nahiz sortzailean ikerketa-prozesuan zehar erabaki propioak hartzea eta arazoak ebaztea.
- Ikerketa-prozesuan zehar jarrera kritikoa eta irekia izatea; ekimena edo inizatiba erakustea.

Ikaslearen eta tutorearen arteko harremana, tutorearen zereginak eta lanaren jarraipena

Ikasle eta tutore bakoitzaren arteko harremana ezberdina da, eta zuek ezaugarrituko duzue. Edozein kasutan, harremana bideratzeko eta tankeratzeko, lehenengo hitzorduan zenbait gairi erreparatzea garrantzitsua litzateke, hala nola honako hauek zehaztea: bakoitzaren lan-egutegia eta aurreikuspenak; komunikatzeko eta elkartzeko moduak, eta elkarlanerako oinarritzko baldintzak.

Tutorearen zereginei dagokienez, ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lanaren garapenean hura orientatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzea eta lanaren jarraipena egitea lirateke. Prozesuaren amaieran, ikasleak lana defendatu aurretik, ikasleari berari zein epaimahaikideei emango zaien txostena idatziko du.

Tutoretzak aurrez aurrekoak, telefonozkoak edo bestelako teknologien bidezkoak izan daitezke, bideokonferentziak kasu. Hitzordua nolakoa izango den erabakitzeko, tutoretzaren helburuak zein ikaslearen eta tutorearen egoerak aintzat hartuko dira.

Tutoretza-saioak, ahalik eta emankorrenak izan daitezen, **alde biek prestatzea** komeni da. Saio bakoitzaren gai-zerrenda eta akta, biak ala biak, lanaren jarraipena egiteko tresna lagungarriak izan daitezke:

- **Gai-zerrendak** *hitzordu bakoitzaren helburuak, iraupena, edukiak (zalantzen eta argitzeko zerrenda barne) eta abar jasotzen ditu.*
- **Lan-saio bakoitzaren aktan** garrantzitsua da *tutoretzan adostutakoak eta aurrera begirako pauso nahiz epeak zehaztea.*

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. Ikaslearen eta tutorearen egoera zein den argitzea: denborak, erritmoak eta asmoak, besteak beste.**
- 2. Tutorearen zereginak zeintzuk diren eta zeintzuk ez argitzea; tutoretza-saioen nolakotasuna adostea.**
- 3. Lanerako kronograma apailatzea.**
- 4. Ikaslea prozesuan kokatzea, sor litezkeen arazoei erreferentzia esplizitua eginez.**
- 5. Entzuteko jarrera aktiboa, errespetua eta ikaslearen ikas-prozesuarekiko konpromisoa oinarritzat dituen lan-giroa sortzea.**

1. FITXA-EREDUA: GRADU-AMAIERAKO LANA SOZIOLOGIAN (IKERLAN-PROPOSAMENA)

TUTOREAREN ESKAINTZA (Dekanotzara igorritako proposamena)	
Ikasturtea	
Gaia	
Deskribapen laburra	
Garatzeko zereginak	
IKASLEAREN DATUAK	
Izen-abizenak	
E-posta	
Telefono-zenbakia	
IKERLAN-PROPOSAMENA	
Izenburua	
Ikergaiaren aukeraketa, motibazioa eta justifikazioa	
Ikerketa helburuak (orokorrak eta zehatzak)	
Metodologia eta ikerketa-teknikak	
Bibliografia (APA, UNE, Harvard, etab.)	
GRAL-AREN PLANGINTZA (kronograma edo lanerako egutegia)	

3. GAIA. GRAL-AREN ALDERDI FORMALAK

GRALaren txostenaren aurkezpen formala

Lan akademiko eta zientifikoak aurkezteko orduan irizpide formal jakin batzuk betetzea *derrigorrezkoa* izaten da, baita GRALetan ere. Horrela egin ezean, litekeena da hartzaileak lana ez onartzea eta, horrenbestez, egileak lana berregin behar izatea. Gainera, badira *malguagoak* diren irizpide formal eta teknikoak ere. Autoreak erabakitzen du zein diren beteko dituen arauak, lan osoan zehar jarraibide berdintsuak erabiliz. Argitaratutako lan akademikoetara jo dezakegu (liburuak, aldizkarietako artikuluak, kongresuetako ponentziak, etab.) eredu bila.

Lanari ekin aurretik komeni zaizu **eskakizun formal nagusiak zein diren jakitea eta elementu formalen gaineko erabaki garrantzitsuak hartzea**. Modu horretan, azterlana errazago egiteaz gainera, denbora eta indarrak aurreztuko dituzu. UPV/EHUko Soziologiako GRALaren irakaskuntza-gidari jarraikiz, lau dira azterlanak jaso behar dituen elementu formalak:

- **Luzera:** ikerlana gutxi gorabehera **10.000-12.000 hitzekoa** izango da, eranskinak zenbatu gabe.
- **Bibliografia aipatzeko modua:** graduan landutako estiloetakoren bati jarraitu beharko zaio (APA, UNE, Harvard, etab.).
- **Taulen aurkezpen formatua:** taulek zenbakituta egon behar dute, eta izenburuak eta iturriak identifikatuta.
- **Plagioa debekatuta dago:** txostena prestatzeko erabili diren iturri guztiak eta jasotako erreferentzia guztiak aipatu behar dira, besteak beste, liburuetakoak, aldizkari zientifikoetako artikuluetakoak, tesietakoak zein web-orrietakoak. Baldin eta ez bada iturria behar bezala aipatzen edo identifikatzen, plagiotzat hartuko da eta lanak zero kalifikazioa izango du.

Horrez gain, Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateak **GRALaren proiektu eredu** bat du. Txantiloia hasieratik erabiltzea gomendatzen dugu².

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- **Betekizun akademiko eta zientifikoak ezagutzea, eta halakoak aplikatzen jakitea.**
- **Lanaren atalak modu logiko, koherente eta ordenatuan egituratzea.**
- **Atalez atal, ikerketa-txosten guztian zehar ideiak, argudioak eta datuak modu argi, zehatz, koherente eta sintetiko batean aurkeztea.**
- **Idatzizko komunikazioan maila altua erakustea: testu ulergarria, erakargarria, argia, zehatza eta erraz irakurtzekoa sortzea; lexiko zuzen eta zientifikoa erabiltzea; gramatikalki zein ortografikoki zuzena den testu bat aurkeztea...**
- **Eskemak, taulak, irudiak, argazkiak edo informazioaren sorreran erabilitako edozein material behar bezala erabili eta aurkeztea.**
- **Konpromiso etikoa eta zorrotasun intelektuala erakustea.**
- **Hizkera ez-sexista erabiltzea, eta euskara teknikoa menperatzea.**

Bibliografia, aipuak eta originaltasun-konpromisoa

GRALean ikasle bakoitzak, banaka eta tutorearen gidaritzapean, azterlan original bat gauzatuko du. Unibertsitatean lana aurkeztearekin batera, **originaltasun-konpromisoaren aitortza sinatuko** du (ikus 1. eranskina)³, zeinean plagiorik egin ez duela adieraziko duen.

Noiz ez da plagioa? Martínez eta Legarretaren arabera “jatorrizko ideiak edo lanak adierazi edo aurkezten ditugunean; jakintza publikoa zabaltzen edo erreproduzitzen dugunean edo jatorrizko ikerketa bateko emaitzak aurkezten ditugunean” (Martínez eta Legarreta, 2017: 16).

Zehazki, zeintzuk dira plagiotzat joko diren ekintzak?

² 2016/2017 ikasturteko ereduak hemen dago eskura: http://www.ehu.eus/eu/web/gkz-csc/ikasleak_gral_16-17#10

³ Ikasmaterial honetako eranskinetan ikasleak sinatu behar duen originaltasun-konpromisoa erantsi da.

3. TAULA. PLAGIOTZAT JOTZEN DIREN EKINTZAK

1. Inoren lana aurkeztea norberarena balitz bezala.
2. Testu zatiak osorik eta aldaketarik egin gabe kopiazea.
3. Testu zatiak kopiazea hitz batzuk aldatuta. Horrek barne hartzen ditu beste hizkuntza batetik GRALeko hizkuntzara egindako testu zatien itzulpenak.
4. Bateko eta besteko iturriak konbinatzea, inolako erreferentziarik jaso gabe.
5. Lana bateko eta besteko iturrien birformulazio bat izatea.
6. Norberak alde zuzenetik egindako lana berrerraztea, eta, ondorioz, originaltasun-baldintza urratzea.
7. Egilea aipatzea baina iturria aurkitzeko beharrezkoak diren datu guztiak agertu gabe.
8. Aipatutako iturriak aurkitu ezin izatea, iturriok okerrak direlako.
9. Egilea aipatzea baina iturria aurkitzeko beharrezkoak diren datuak adierazi gabe, inorena den interpretazio bat norberarena balitz bezala aurkeztea.
10. Aipamenak eta erreferentziak zuzenak izatea, baina horiek artikularen zatirik handiena hartzea.
11. Egile baten hizkera sortzailea erabiltzea dagokion aitortzearen ordez egin gabe.
12. Inoren ideiak norberarenak balira bezala aurkeztea.
13. Beste egile baten arrazoibideari jarraitzea, jatorrizko artikuluan agertzen denaren antzera.
14. Beste azterlan batzuetako datuak plagiatzea.

Iturria: Originaltasun-konpromisoaren zinpeko agiria, Yolanda Morató-ren egokitzapena⁴ eginez.

Beharrezkoa da **besterenak diren ideiak, datuak edo informazioak egokiro aipatzea**. Eva Anduiza eta Mónica Méndezek arabera (datarik gabe: 2) iturriari erreferentzia egiteko bi oinarritzko arrazoi daude. Bata, zintzoa den ikasle edo ikertzaileak bereak ez diren ideiak aitortzen dituelako. Bestea, irakurleei jatorrizko iturrietara gerturatzeko aukera eskaintzen dielako, informazioa kontrasta edo osa dezaten.

Bi tokitan frogatuko da, bereziki, aipuak egokiro txertatu diren: **testuan zehar eta bukaerako bibliografian**. Aipuak eta erreferentziak modu egokian txertatzeko *Gizarte eta Komunikazioaren Zientzietan bibliografia eta aipuak txertatzeko moduari buruzko gidaliburu*⁵ (Martínez eta Legarreta, 2017) erabiltzea gomendatzen dizugu. Jarraian, gida horretan oinarriturik, oinarritzko irizpide batzuk jaso ditugu.

Idazlanean **aipuak** egokiro txertatzeko irizpide orokor hauei jarraitzen zaie:

- **Aipua laburra** denean, testuan bertan txertatzen da, komatxo artean. Parentesi artean, autorea edo autoreak, argitalpen-urtea eta orria edo orri-tartea zehaztu behar dira. Adibidez:

⁴ Morató, Yolanda. 2012. "Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES". UPO INNOVA aldizkaria, I. lib.:361-368.

⁵ Hemen: www.ehu.es/gkz-cs

Gogoan izan “(h)izkuntza, komunikatzeko eta harremanak izateko funtsezko bitartekoa izateaz gain, bizi gaituen eta bizi dugun errealitatea partekatzeko bidea” dela (Apodaka eta Apodaka, 2008: 3) eta, era berean, idaztean zein irudiak baliatzean errealitate jakin bat aurkezten diegula besteei.

- **Aipua luzea** denean (4-5 lerro baino gehiago), testutik atera eta modu berezian aurkeztuko da: paragrafo gisa justifikatu; letra-tamaina txikiagoa edo letra-estilo ezberdina erabili; letra larri edo etzana baliatu, etab. Aipuaren bukaeran, parentesi artean, autorea edo autoreak, argitalpen-urtea eta orria edo orri-tarteak zehaztu behar dira. Adibidez:

“GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa-arlokoak izango diren **datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari** begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiarik edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko **gogoeta egin eta iritzia eman** dezan eta gogoeta eta iritzi horiek **kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan** daitezen” (UPV/EHU gradu amaierako lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia, 2. artikulua.— Gradu Amaierako Lanaren izaeraz).

Testuan **besteren ideia, kontzeptu edo informazioei erreferentzia** egitean, irizpide hauei jarraitzen zaie:

- Egile bat denean: (Carrasco, 2013).
- Bi egile badira: (Berger eta Luckmann, 1998).
- Hiru egile edo gehiago badira: (Berger et al., 1974).
- Egile beraren eta argitalpen-urte beraren erreferentziak badira: (Carrasco 2016a; 2016b; 2016c).
- Bi edo erreferentzia gehiago direnean (Kuhn, 1971; Popper, 1972; Tarski, 1956; Young, 2000).
- Egile batek aipatutako beste egile baten obraren erreferentzia denean (Lennard eta Berstein, 1960; hemen aipatuta: Watzlawick et al., 2002).

Bestalde, txostenean jasotzen diren **taula eta grafiko guztiak zerbaiturik** egongo dira eta *izenburua* izango dute. Taularen edo grafikoaren oinean *iturria* aipatuko da, informazio hau eskainiz:

- Norberak egina (Iturria: norberak egina).
- Beste batek egina (Iturria: Galardi, 2017: 10).
- Norberak egina beste iturri batez baliaturik (Iturria: norberak egina. Datuak: Gaindegia, 2017).

Bukaerako bibliografian, testuan zehar erabilitako erreferentzia guztiak modu egokian jasoko dira. Egileak erabaki dezake zer estilo erabili (APA, UNE, Harvard, etab.), baina gure gomendioa *Gizarte eta Komunikazioaren Zientzietan bibliografia eta aipuak txertatzeko moduari buruzko gidaliburuak* proposatutakoa erabiltzea da, hau da, Harvard izen osoa txertatuz.⁶ Ikasmaterial honen 12. gaian jaso ditugu bibliografia osatzeko gomendioak.

Ikerketaren alderdi etikoak

Ikertzaile orok ikerketaren alderdi etikoei heldu behar die. Ikerketa-prozesuan parte hartzen duten *pertsonen osotasuna, autonomia eta duintasuna bermatzea* ezinbestekoa dugu, eta, horretarako, oinarrizko **hiru printzipio** bete behar direla azpimarratzen da: informatutako onespena, informazioaren isilpekotasuna eta parte-hartzaileen anonimatua (Abad, 2016).

- **Informatutako onespena:** parte-hartzaileek badakite zertan datzan ikerketa eta haien parte-hartzea borondatezkoa da (haxe bermatzen duen dokumentua sinatu ohi dute).
- **Informazioaren isilpekotasuna eta parte-hartzaileen anonimatua:** batera doazen printzipioak, parte-hartzaileak zein diren eta zeinek adierazi duen zer ez dela jakingo bermatzea.

Begoña Abadek ikerketa kualitatiborako egindako proposamena ikerketa sozial aplikatua orori zabalduz, gure lanaren ardura etikoen inguruko etengabeko hausnarketa garatzea litzateke afera honi heltzeko bide egoki eta nahitaezkoa. Edozein kasutan, egun ikerketaren alderdi etikoaren eztabaida mahai gainean dago.

Era berean, azken urteetan askotariko batzorde etikoak sortu dira, hala nola UPV/EHUko *Irakaskuntzaren eta Ikerketen Etikarako Unibertsitate Batzordea (IIEUB)*. Beste unibertsitate batzuetan ez bezala, UPV/EHUko IIEUBek GRALen alderdi etikoen egokitasuna bere gain hartu du. Gauzak horrela, alderdi etikoen kudeaketaren nolakotasuna hasieratik zure tutorearekin adostea gomendatzen dizugu.

⁶ Emakumeek zientzian egindako ekarpenak agerian uzteko erabili ohi den irizpidea.

Idazketa-estiloaren gaineko erabakiak


Idazlan bat aurkezteko modu eta estilo asko daude. Oso pertsonala izaten da idazketa bera, zirriborroen bidez finduz joango dena. Lanean hasi aurretik, baina, komeni da idazketaren gaineko erabakiak hartzea.

Horretarako, kontuan hartu beharko litzateke, besteak beste, *zein diren idazlanaren gaia, xedea eta helburua; nor diren txostenaren hartzaileak edo irakurleak; non aurkezten den lana; zein den idazlan mota* (deskribapena, azaltzailea...); *zein diren atalak eta azpiatalak; nola ordenatuko diren ideiak testuan zehar* (ideiak nola antolatu eta sailkatu); *nola ariko gatzazkien hartzaileei* (lehen pertsonan, modu inpersonalean, etab.); *zer hizkera mota baliatuko den* (argia, zehatza, zuzena, arrunta, akademikoa...).

Ideiak antolatzeko, sailkatzeko eta aurkezteko modu asko dauden arren, irizpide orokor hauei jarraitzea gomendatzen dugu:

- **Izenburuen** argigarritasun zein erakargarritasunari erreparatzea. Izenburuek, irakurleari atal horretan garatuko diren edukien berri helarazteaz gain, interesa piztea dute helburu.
- Atalaren hasieran gaiari **sarrera txiki** bat egin. Gaiaren alderdi guztiak paragrafo laburretan ordenatu, eta paragrafo bakoitzean ideia bakarra garatu.
- **Oin-oharrak** harik eta gutxien erabili. Irakurleak gai izan behar du lanaren ideia nagusiak jasotzeko, oin-oharretan dauden azalpenetara jo gabe.
- **Idea nagusiak** ordenatzeko eta testua bera erakargarriago bihurtzeko, ideia nagusiak kontzeptu-mapetan, tauletan edo grafikoetan bildu.
- **Idazkerari** dagokionez, *batzuen ustez, esaten da* eta antzeko esamoldeen erabilera saihestuko dugu.

1. IRUDIA. IDEAK ANTOLATZEKO PROPOSAMENA



Iturria: Norberak egina, Eva Anduiza eta Mónica Méndezen arbolaren irudian oinarriturik (data gabe: 9)

Bestalde, lehen zirriborrotik hasita azken txostena aurkeztu arte, **ortografia eta gramatika zaintzea** garrantzitsua da. Horretarako, *zuzentzaileak erabiltzea*⁷ eta *hirugarren bati zuzenketak egitea eskatzea* gomendatzen dugu. Tutorea ez da, inondik inora, ikaslearen lana orraztearen arduraduna.

Euskaraz aurkeztutako GRALei dagokienez, **euskara tekniko**a erabiltzeko arautegira jo daiteke, eta horretarako baliabide ugari dituzu *Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren* web-orrian eskuragai.⁸ Jatorrizko erreferentzia erdaraz dagoenean, gomendagarria da hura erdaraz literalki aipatzea (iturria egokiro aipatuz betiere) eta oin-oharretan itzulpena eskaintzea (norberak egindako itzulpena dela zehaztuz).

Azkenik, lan akademikoetan **hizkera ez-sexista** erabiltzearen aldeko apustua egin du UPV/EHUK eta, ondorioz, unibertsitateko kide guztiok gara horren arduradun zein bermatzaile; zu zeu ere bai. Gogoan izan "(h)izkuntza, komunikatzeko eta harremanak izateko funtsezko bitartekoa izateaz gain, bizi gaituen eta bizi dugun errealitatea partekatzeko bidea" dela (Apodaka eta Apodaka, 2008: 3) eta, era berean, idaztean zein irudiak baliatzean errealitate jakin bat aurkezten diegula besteei. Zure GRALean islatuko duzun errealitate hori sexista izan ez dadin *UPV/EHUn euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida*⁹ erabiltzea gomendatzen dizugu.

Tutoretza lanak errazteko aholkuak

1. **Ikasleak GRALaren alderdi formalen inguruko informazioa bereganatu duela baieztatzea.**
2. **Hasieratik testuaren zuzentasuna eskatzea (aipuak, erreferentziak, taulak txertatzeko modua; ortografia eta gramatika; bibliografia taxutzeko modua, etab.), baita aurkezten diren zirriborroetan ere.**

⁷ Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikalaren webgunean txantiloia doan jaits daiteke: <http://xuxen.eus/>

⁸ <http://www.ehu.eus/eu/web/euskara>

⁹ <http://www.ehu.eus/documents/2007376/0/Gida>

BIGARREN ATALA

GRAL-AREN
LANKETA ATALEZ
ATAL

4. GAIA. GRAL-ETAN LABURPENA ETA GAKO-HITZAK ZERGATIK TXERTATU

Lan akademikoetan laburpena eta gako-hitzak aurkeztea eskakizun formal bat izaten da. UPV/EHUko Soziologiako GRALetan gaur arte horrelako lanketarik eskatu ez den arren, gida honetan GRALetan biak txertatzea aholkatzen dugu: *betekizun akademikoetan trebatzeaz gainera, GRALaren hartzaileari lanaren sintesi osatu eta argigarri bat eskain diezaioke.*

- **Laburpena** (*abstract*, ingelesez) lanaren sintesia da. Ikergaia, ikerketa-xedea eta helburu nagusia aipatzeaz gainera, komeni da ikerketa sozial aplikatuetan metodologiari eta teknikei erreferentzia egitea. Lanean lortutako emaitza edo ondorio nagusia ere nabarmendu daiteke. Laburpenak 250 hitz baino gutxiago izaten ditu.
- **Gako-hitzak** (*key words*, ingelesez) lan zientifikoak sailkatzeko erabiltzen dira, datu-baseetan egiten ditugun lanen nahiz edukien bilaketa azkartzeko xedez. Gako-hitzak zehazteak sintesi-ariketa handia dakar era berean, lana hitz gutxitan biltzea eskatzen baitu (4 edo 5 hitz gehienez). Laburpenean egin bezala, ikerketa sozial aplikatuetan ikergaiari, metodologiari edo ikerketa-teknikei erreferentzia egitea egokia litzateke.

Laburpena eta gako-hitzak aurkibidearen aurretik eta orri bakar batean jasotzen dira. Eduki horiek begiratu batean bereizteko asmoz, letra tamaina edo orri-marjina diferentek erabil ditzakezu. Azkenik, laburpena zein gako-hitzak GRALaren jatorrizko hizkuntzan eta ingelesez aurkeztu ohi da. Kongresu nahiz aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikuluetara jo dezakezu eredu bila.

5. GAIA. GRAL-AREN SARRERA NOLA EGIN

Sarrera, hitzaurrea, aitzinsolasa edo atarikoak litzateke GRALaren lehen gai nagusia. Gai horretan, *lanaren oinarriak* aurkezten dira, eta, zehazki, *ikerketaren planteamendu orokorra, azterlanaren muina eta egindako lanaren nondik norakoak*. Atariko gaia izanik, irakurleari *lanean kokatzeko informazio nahikoa eskaini* behar diozu. Era berean, *lanarekiko interesa pizten* saiatuko zara.

GRALaren sarrera lana bukatu ostean idatzi ohi dugu. Hala ere, ikerketaren oinarriak lehen gai honetan jasotzen ditugunez, beste egitekoetan hasi aurretik komeni da sarreraren lehen zirriborroa prestatzea eta tutorearekin kontrastatzea. Hauek dira lehen zirriborroan nahiz GRALaren azken txostenean landu daitezkeen alderdiak:

- **Ikerketaren planteamendu orokorraren aurkezpena:** *ikergaiaren* zehaztapena eta justifikazioa; ikerketaren *helburu nagusiaren* formulazioa (helburu orokorrak eta espezifikak beste atal batean landuko dituzu); eta *metodologiari* eta *teknikei* buruzko aipamen laburra. Halaber, ikerketaren planteamendu orokorra biribiltzeko komenigarria izaten da gaiaren inguruan duzun *abiapuntu*ko *begirada* edo *ikuspuntua* argitzea. Iturri teoriko edo enpiriko nagusi batean oinarritu(ko) bazara, hori ere labur azaltzea egokia litzateke.
- **Ikerketaren justifikazioa eta lortutako emaitzak:** lanaren *interes akademiko, zientifiko, politiko edo sozialaren* zehaztapena. Ikerketa honen beharra, erabilgarritasuna edo egokitasuna argudiatu behar duzu, *ikerketaren xedea* eta lan honen bidez egin nahi dituzun *ekarpen nagusiak* zeintzuk diren argi utziz. Halaber, guztiak aipatu gabe, *lanaren ondorioen bat edo lortutako emaitza interesgarriren bat* aurreratu dezakezu.
- **Ikerketaren markoa:** lanaren *egile(ak)* eta *hartaile(ak)* zein diren argitzea. Egileak alde aurretik ikergaiarekiko duen ezagutza, gertutasuna edo motibazio pertsonala azaldu dezake. GRALen marko nagusia unibertsitate-eremua da.

- **Txostenaren egitura:** irakurleak GRALaren txostenaren atal bakoitzean zein informazio edo eduki mota topatuko duen aurreratu dezakezu, lanaren osotasuna eta gaien arteko loturak azalaraziz.

GRALetan sarrerako gaiak 2-3 orrialde izaten ditu. Idazketari dagokionez, bi aholku nagusi eman nahi dizkizugu. Lehena, ondorengo gaietan plazaratutako informazioa modu literalean ez kopiatzea. Bigarrena, irakurleen arreta erakartzen saiatzea.

Azken horri begira CLACSOren gida metodologikoaren (Sautu et al., 2006: 164) aholkuei jarrai diezaiekezu, esaterako, datu edo estatistika esanguratsu bat plazaratuz, uste orokortuak zalantzan jarriz, bitxikeria edo pasadizoren bat kontatuz, autore ezagun baten esaldi bat transkribatuz, edo irakurlea interpelatuz ("*zure buruari arazoa zein den galdetuko diozu*" eta parekoak). Edozein modutan, gai honetan zuk egindako ikerketaren oinarriak aurkezten dituzunez, beste autoreen aipu literalak ekiditea gomendatzen dizugu.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK


- **Azterlanaren muina identifikatzea, eta egingarria den ikerketa-planteamendu osatua eta koherentea taxutzea.**
- **Ezagutza berriak garatzeko ideia eta planteamendu sortzaileak eta berritzaileak aurkeztea.**
- **Norberaren argudioak erabilia ikerketaren oinarriak modu sintetiko eta erakargarrian komunikatzea, eta irakurlearentzat erakargarria den testua idaztea.**

Ikergaiaren aukeraketa, zehaztapena eta aurkezpena

Esan bezala, GRALaren sarreran ikerketaren oinarriak aurkezten ditugu, zeinak ondorengo gaietan sakontasun handiagoarekin landuko baititugu. Ikergaiaren gaineko zehaztapen gehienak, aldiz, lehen gaien eskaintzen dira. *Zer ikertu dut? Zergatik da interesekoa gaia? Nola mugatu dut ikergaia?* Halako galderari erantzun beharko diezu.

Ikerketa sozial aplikatua etengabeko joan-etorriak dituen prozesu gisa ulerturik, ezin ahantz erantzun gehientsuenak (eta galdera berriak) ikerketa-prozesuan argituz doazela (ikus 2. irudia). Prozesu gisa ulerturik, ez ahantz ikergaia mugatzean pausoz pauso joatea eta ikergaia eraikitzeke urrats bakoitzari behar beste denbora eskaintzea.

2. IRUDIA. IKERGAIAREN ERAIKUNTZA IKERKETA-PROZESUAN ZEHAR



Iturria: Norberak egina.

Lehenik eta behin, **ikergaia aukeratzeko bide** asko daudela kontuan izan behar duzu: eragile edo erakunde batek hala eskatu duelako, ikertalde baten ikerketa-lerroaren parte delako, GRALaren tutoreak proposatu duelako edo lanaren egileari aurretik landutako eremu batean sakontzeko aukera ematen diolako. Horrenbestez, ikergaia aukeratzean, *ikerketa-markoari* (ikerketa nork eta norentzat egiten dugun, eta motibazio pertsonalak zeintzuk diren) erreferentzia egiten ari gara, zeharka bada ere.

Bigarrenik, ikergaia aukeratzeko edozein bide hartuta ere, beharrezkoa da **gaiaren egokitasuna argudiatzea**. Gaurkotasun handiko gaia izan daiteke, edo orain arte ikertu gabeko afera, arazo edo kasu zehatza; aurretik egindako ikerketen hutsune edo mugei erantzuteko edo planteatutakoarekin desadostasunak dituzulako, eta abar. Hori litzateke, hain zuzen ere, *ikerketaren interes akademikoa, zientifikoa edo soziala justifikatzeko* modu aproposa.

Azkenik, ikergaia harik eta gehien zehazteko eta GRALeko lehen gaien aurkezteko, zera aholkatzen dugu:

- **Ikergaiaren bi alderdi zehaztea eta justifikatzea.** Batetik, *interes-eremua edo ikerketa-lerroa*, GRALaren tutoreak proposatutakoaren haritik doana (adibidez, genero-ezberdintasunak, praktika sozialak, identitate kolektiboak), eta, bestetik, *behaketa- edo analisi-unitatea*, hots, ikerketaren denbora-espazioa

nahiz unibertsoa edo lagina (adibidez, azken 10 ikasturteetako UPV/EHUko Soziologiako ikasleak), zeina, tutoreak definitu ezean, ikasleak berak mugatu beharko baitu.

- **Ikergaia eta ikerketaren helburuak ezberdintzea:** ikergaiak gure interes-eremuari erreferentzia egiten dio (*zer ikertuko dut?*); helburuek, berriz, ikerketa-galderak islatu behar dituzte (*zein dira ikerketaren bidez erantzun nahi ditudan galderak?*)
- **Ikergaia esaldi bakar batean zehazteko gai izan behar genuke.**
- **Gogoeta epistemologiko xumea egitea,** ezagutza berriak nola sortuko ditugun argitzeko lagungarria dena (*Zein da ikergaiarekiko dudan gertutasuna? Zein dira gaiari buruz ditudan ezagutzak eta usteak? Horiek kolokan jartzeko prest nago? Nola eta noraino baldintzatu ditzakete nire identitateak, nire kokapen sozialak eta gaiarekiko dudan irudikapenak ikerketa bera eta ezagutza berrien sorrera?*)

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

1. Aukeratutako gaia ikaslearen interesekoa dela bermatzea.
2. Lehen zirriborroa eskatzea, eta horren bideragarritasuna ikaslearekin batera aztertzea.
3. Lana bukatzean, ikerketaren oinarriak sarrerako gaien jasotzen direla bermatzea.

6. GAIA. GRAL-AREN PLANTEAMENDU TEORIKOA NOLA ERAIKI

Planteamendu edo marko teorikoa GRALaren bigarren atal nagusia da. Gai honetan ikergaiaren inguruan dauden *ikuspegi teorikoak* nahiz *aurrekari enpirikoak* jorratzen dira batik bat. Are gehiago, lanketa teorikoaren bidez ikerketaren behar hauek ase nahi ditugu: *gaiari buruz dauden ikuspegiak ezagutu, gaiari buruzko ikuspegi propioa eraiki; kontzeptuak edo aldagaia nagusiak identifikatu eta (bir)definitu; premisak eta postulatuak (bir)planteatu; galdera berriak eta hipotesiak formulatu; eta ikergaia mugatu.*

Teoria gai baten gainean dagoen ideia, kontzeptu edo postulatu multzoa dela uste badugu, ikerketa-txosten osoa teoriaz zipriztindua dagoela esan dezakegu. Zentzu horretan, GRALaren planteamendu teorikoan **abiapuntu bat jartzea dugu** helburu, ikergaira *hurbiltzea* hain zuzen ere. Marko teoriko itxi edo mugatu bat eraiki beharrean, *gaia (bir)formulatzen eta teorien eta esperientzien arteko elkarrizketa plazaratzen* saiatzen gara.

Ildo horretatik, planteamendu teorikoa ez da aurrekari teoriko eta enpirikoen laburpen hutsa, ezta gaiaren inguruan “zenbat irakurri dudan” erakusteko momentua ere. Teoriak edo datuek ez dute berez ezer esaten; gure ikerketan plazaratutako gaiarekin harremanetan jarri behar ditugu, zentzua har dezaten. Planteamendu teorikoan egiteko nagusien artean dugu *erreferentzien artean zubiak eraikitzea, gogoetatzea, hausnartzea, interpretatzea.*

Halaber, planteamendu teorikoa eta testuinguruaren markoa maiz nahasten ditugula ohartarazi beharrean gaude. Gure lana ez bada prozesu jakin baten bilakaera edo fenomeno baten azterketa historikoa, beharrezkoa dugu lanketa teorikoa eta testuinguruaren lanketa ezberdintzea. Testuinguruaren gaineko argipenak gida honen 7. gaian emango ditugu.

Planteamendu teorikoaren gaineko argipenak eman ostean, zeintzuk dira, zehazki, atal honetan jorratzen ditugun alderdiak?

- **Aurrekari teoriko eta enpirikoen berrikuspen kritikoa.** “Arazoaren edo gaiaren egoera” deritzona, gaiaren bilakaera edo orain arte egindakoa barnebiltzen du. Ikuspuntu eta emaitza ezberdinak harremanetan jarri eta alderatzearekin batera, orain arte *egin ez dena* nabarmentzea egokia da, hots, *egin daitekeena azalaraztea* (beste ikuspunturen bat txertatu beharra edo aldagai jakin bat kontuan hartzea, adibidez).
- **Kontzeptu eta kategoria nagusiak identifikatu eta (bir)definizioak proposatu.** Besteak beste, ikerketaren helburuak zehaztera edo birformulatuzera bideratuta dagoen lanketa da. Prozesuak eta fenomenoak jorratzeko kontzeptu, kategoria eta ideiak harremanetan jartzea estrategia metodologiko kualitatiboari egokitzen zaio batik bat.
- **Aldagaiak identifikatu eta harremanetan jarri.** Estrategia metodologiko kuantitatibo bati egokitzen zaizkion ikerketa-lanetan aldagaiak zehazten dira. Elkarren artean harremanetan dauden proposizioak eraikitzen dira, hipotesi gisa formulatu ohi direnak.

Planteamendu teorikoa aurkezteko **azpiatalak ezberdintzea** aholkatzen dizugu. Luzera ikerketa motaren eta helburuen arabera den arren, GRALetan planteamendu teorikoak gutxi gorabehera 10-15 orrialde izaten ditu.

Esaldi eta paragrafoen artean **lotura argiak eta koherenteak** egitea garrantzitsua da. Ideia nagusiak hobeto azaltzeko, eta testuaren irakurketa atseginagoa izateko, **euskarri osagarriak erabil** daitezke (taulak, grafikoak, kontzeptu-mapak, irudiak...). Kontuan izan behar duzu irudiak ez duela inoiz testua ordezkatzeko. Hots, beharrezkoa dela erabilitako euskarria testu bidez azaltzea.

Azkenik, planteamendu teorikoaren aurkezpenean berebizikoa da **besterenak diren ekarpenak eta gure interpretazio eta (bir)planteamenduak ezberdintzea eta bakoitza zeini dagokion argi agertzea**. Horretarako, irakurleari modu pertsonalean hitz egin diezaiokezu (“*niri iritziz*”, “*ikerketa honen ikuspegia da...*”, “*horretan oinarriturik, definizio hau proposatzen dut*” eta parekoak). Edonola ere, besterenak diren erreferentziak eta aipuak egokiro txertatuko ditugu (ikus gida honen 3. gaia), eta bukaerako bibliografian guztiak jasotzeko ardura hartuko dugu.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Gaia edo arazoaren egoera laburbiltzen duen planteamendu teoriko osatu eta egokia garatzea.
- Ikergaiarekin harremanetan dauden ikuspuntu, kontzeptu edo aldagai nagusiak identifikatzea.
- Gaurkotasuna duten eta gaiari egokitzen zaizkion erreferentzia bibliografiak bilatzea, aztertzea, ulertzea eta aplikatzea.
- Zorroztasun akademikoa eta konpromiso etikoa garatzea, norberarenak ez diren ideiak, argudioak edo datuak aitortuz, eta besterenak diren erreferentziak eta aipuak egokiro txertatuz.
- Ikuspuntu propioa lantzea, arazo edo gaiari begirada propioa eta/edo eraberritua txertatzea, eta argudiatzen trebatzea.

Planteamendu teorikoa eraikitzeko oinarrizko urratsak

Arestian aipatu bezala, planteamendu teorikoak gure ikerketaren abiapuntuak jartzeko baliagarria izan behar du. Graduan zehar ikasleak lanketa teoriko ugari egiten baditu ere, lan horiek gehienetan ez dira ikerketa sozial aplikatuaren prozesuan kokatzen, modu isolatuan eta espezifikoan baizik. Zailtasun horren jakitun, gida honetan planteamendu teorikoa eraikitzen hasteko proposamen bat egin nahi dugu:

4. TAULA. PLANTEAMENDU TEORIKOA ERAIKITZEKO URRATSAK

- 1. Ikerketaren oinarriak errepasatu, eta ikuspegia zehaztuz joan.** Ikergaia eta ikerketaren helburu nagusia begi-bistatik galdu gabe, eta lanketa horren bidez biak ala biak zehaztuz joango garela kontuan izanik, galdera gako batzuei erantzutea lagungarria izan daiteke: nire burua *teoria soziologiko edo paradigma* baten barruan kokatzen al dut?; graduan zehar landutako erreferentzien artean, zeintzuk dira nire erreferentziatzko *eskola edo korrante teorikoak*?; praktikak edo/eta egitura sozialak aztertzeke interesa daukat?, hau da, *zein mailatan kokatzen dut aztertuko dudan afera* (mikro, makro edo/eta tarteko mailan)? Zein da lanari ematen diodan *orientabide metodologikoa*? Horren arabera, *kontzeptu edo kategorien lanketa* egingo dut, edo/eta *aldagaiak identifikatu* behar al ditut planteamendu teorikoan?
- 2. Graduan zehar landutako erreferentzia interesgarriak birpasatu.** GRALaren planteamendu teorikoa lantzen hasteko eskuarki ez gara hutsetik abiatzen. Hots, bagaje edo oinarri batzuk baditugu. Horiek guztiak errepasatzea egokia litzateke. Gainera, GRALean graduan zehar jasotako edukiak bildu, aplikatu eta garatu nahi direla kontuan hartuz, interesekoak izan daitezkeen erreferentziak berreskuratzea funtsezkoa litzateke.
- 3. Bilaketa bibliografiko zabal eta askotarikoa egin.** Erreferentzia berriak edo osagarriak bilatu nahian, gutxienez bi bilaketa mota egingo ditugu. Batetik, gaiaren inguruan dauden *aurrekari teorikoak* bilatu. Horretarako, ikuspuntu teoriko ezberdinetara jo dezakezu, edo zure ikuspegiaren araberrako bilaketa egin. Bestetik, *aurrekari empirikoetara jo*, hots, azken urteetan ikergaiarekin estuki lotutako iturrietara. Halakoak gutxi edo eskasak izatekotan, antzeko arazoak edo gaiak jorratzen dituzten ikerlanak bilatzea dagokizu. Bilaketa bibliografikoa egiteko gestore bibliografikoak erabiltzea gomendatzen dizugu (ikus gida honen 2. eranskina).
- 4. Iturri bibliografiak aztertu.** Bi lanketa mota egitea aholkatzen dugu. Batetik, *edukiak aztertzea*, hau da, dauden proposizio, premisa edo ikuspuntuak zehaztu nahiz kontzeptuak edo aldagai nagusiak identifikatu. Ikerketa empirikoen analisia egitean, *ikerketa-diseinuari eta estrategiei erreparatzea* oso baliagarria litzateke, zure ikerketan aplikagarriak diren balioesteko. Bestetik, *informazioa aurkezteko moduei arreta jartzea* (aipuak nola txertatzen diren, esaldi eta paragrafoen arteko loturak, estiloa, azpiatalak...). Lanketa horiek egitean ez ahaztu jasotako informazio guztiaren erreferentziak aipatzea (egileak, urtea: orrialdea). Informazioa modu sistematizatuan jasotzeko, gai honen bukaeran eskaintzen dugun eredia erabil dezakezu.
- 5. Jasotako informazioa interpretatu** erreferentziak harremanetan jarriz eta horietan jorratu ez diren alderdiak nabarmenduz; (bir)definizioak eta (bir)planteamenduak eskainiz, eta kale-lanaren bidez erantzun daitezkeen galdera konkretuak plazaratuz, besteak beste.
- 6. Erreferentziak ordenatu eta lehen zirriborroa prestatu**, nola eta informazio garrantzitsuena mahai-gaineratuz eta azpiatal nagusiak zehaztuz. Ahalik eta eskema osatuena prestatzea aholkatzen dizuegu, iturri guztiak egokiro aipatuz.
- 7. Tutorearekin lehen zirriborroa edo eskema kontrastatu.**

Iturria: Norberak egina.

Aurreko taulan laburbildu bezala, lanketa bibliografikoarekin hasi aurretik (bilaketa, aukeraketa eta analisia edo interpretazioa) egilearen ikuspuntua zehaztea oso

lagungarria izan daiteke. Hain zuzen ere, ikuspuntuaren arabekoak izango dira planteamendu teorikoa zein ikerketaren diseinua. Aitzitik, esan gabe doa gaiaren inguruan dugun ikuspegia ez dugula zertan hasieratik finkatuta izan. Alderantziz, lanketa teorikoan aurrera egin ahala, ikuspegia zehaztuz eta elikatuz joango gara.

Esandakoa hobeto azaldu nahian, adibide bat jarriko dugu. Ruth Sauturen koordinaziopean (2006: 42) marko teorikoa eta metodologikoa eraikitzeke gidan, horrela definitu dute ikerketa baten interes-eremua: Argentinako langabeen mugimenduko kideen identitate kolektiboaren eraikuntza subjektiboa nahiz kolektiboa. Identitatearen afera oso zabala izanik, maila mikroan jarri dute arreta: partaideen arteko interakzioan dauden identitate-eraketako prozesuak hartuko dituzte aztergai. Paradigma konstruktibista batean oinarrituz, interakzionismo sinboliko deritzon teoria orokorra landu dute. Hura osatzeko, interakzionismoarekin bat datozen herri-mugimenduen teoriak ere lantzea erabaki dute. Halaber, ikerketari orientazio kualitatiboa eman diotenez, lanketa teorikoa kontzeptu eta kategoria nagusien bueltan eraiki dute.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. Bibliografia bilatzeko, aukeratzeko eta aztertzeko plan bat elkarrekin diseinatzea.**
- 2. Ikasleak egin duen planteamendu teorikotik abiatuz, ideien arteko harremanak ezartzen eta galdera edo hipotesi berriak formulatzen laguntzea.**
- 3. Planteamendu teorikoa eraikitzeke dauden aukeren artean ikerlanari hobekien egokitzen zaiona zein den aztertzea.**

2. FITXA-EREDUA: ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOEN ANALISIA	
ITURRIA (APA, UNE, Harvard, etab.)	
LABURPENA (artikulu bat bada, kopia eta itsatsi dagoen bezala)	
GAKO-HITZAK (artikulu bat bada, kopia eta itsatsi dagoen bezala)	
HELBURUAK	
METODOLOGIA ETA TEKNIKAK	
EKARPENAK (Postulatu, kontzeptu, kategoria edo aldagai nagusiak identifikatu; egilearen ekarpenak eta zure interpretazioa bereizi; erreferentzia guztiak egokiro jaso, autorea, urtea eta orrialdea zehaztu)	
ERREFERENTZIA INTERESGARRIAK (Bibliografian aipatzen diren beste erreferentzia interesgarri batzuk aipatu)	
BESTELAKO OHARRAK	

7. GAIA. GRAL-AREN TESTUINGURUAN ZER PLAZARATU¹⁰

Testuinguruaren helburua da zure *lana denboran zein inguru geografiko edo kulturean kokatzea*, hau da, *ikertuko duzun hori noiz eta non finkatzen den zehaztea*. Gertakizun sozialak denboran eta espazioan oso aldakorak dira, eta, horregatik, aztertuko dugun afera une eta espazio zehatzekin lotzea ikerketa-lanaren ezinbesteko pausoa dugu.

Gida honetan 6. gaian aipatu dugunez, testuingurua eta planteamendu teorikoa desberdindu behar ditugu. Atal honetan ez diegu aurrekari teorikoei erreparatuko, ikergaiaren kokapenerako baliagarriak izan daitezkeen elementuei baizik. Izan ere, testuingurua garatzeko bide bat baino gehiago ditugu: lana une sozio-historiko eta geografikoan kokatzea, bilakaera sozio-historikoaren berri jasotzea edo gaiarekin lotutako legedien bilakaera aztertzea, besteak beste. Ikergaiaren arabera, bide bat ala beste hartuko dugu, betiere gaia inguratzen duten osagaiei so eginez.

Ariketa honek funtzio bikoitza du. Alde batetik, **ikergaia kokatzen laguntzen digu**, gure lanean eragin dezaketen elementuak identifikatzeko unea baita. Bestetik, **irakurleei azterlana ulertzeko beharrezkoak diren gakoak helarazten dizkie**.

Adibideren bat jar dezagun: ez da gauza bera Hego Euskal Herriko gazteen portaera sexualen azterketa XXI. mendearen hasieran edo frankismoaren hastapenetan ikertzea, edo, gaia aldatuz, 2016an atzerriko populazioak zuen euskararen ezagutzamaila Ondarroan edo Gasteizen. Azken adibideari helduz, ikerketa taxutzeko ezinbestekoa dugu argitzea nolako den Ondarroan euskararen erabilera, zer lan mota egiten duten atzerrian jaiotako pertsona horiek edo zer-nolako harreman-sareak dauden.

¹⁰ Atal hau idazterakoan [SIMReF](#) (Diziplinarteko Ikerketa Metodologia Feminista) taldean izandako barne-eztabaidak gogoan izan ditugu.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- **Ikergaia espazioan eta denboran kokatzeko testuinguruaren planteamendu osatua garatzen jakitea.**
- **Azterlanari egokitutako datuak eta informazioak bilatzea, aukeratzea, aztertzea eta era zehatz eta erakargarrian komunikatzen jakitea.**
- **Arazoei eta behar sozialei buruzko informazioa era sintetikoan analizatzea, genero-, klase- eta etnia-desberdintasunei arreta berezia jarriz (Soziologia Graduko zeharkako gaitasuna).**
- **Datuen gaineko jarrera kritiko eta erreflexiboa izatea.**

Testuingurua testuinguratuz

Testuinguruaren lehenengo zirriborroa ikergaia zehaztu eta gero idatzi ohi da. Atal hau jorratzerakoan, planteamendu metodologikoa diseinatzeko baliagarriak izan daitezkeen argibideak identifikatu behar dituzu. Horretarako, *zure lanaren helburuak une oro presente izatea oso lagungarria da*. Dena dela, ez ahaztu ikerketa prozesu bat dela eta, lanak aurrera egin ahala, testuinguruan jaso beharreko elementuak ager daitezkeela. Gauzak horrela, lehenengo zirriborro horren behin-betiko bertsioa kalena burutu eta gero idaztea gomendatzen dizugu.

Atal honetan, zure lana errealitate sozial zehatz batean kokatzeko lagungarriak izango diren elementuak aukeratu behar dituzu, aztertzen ari zaren gaiarekin zuzeneko zein zeharkako lotura izan dezaketenak: ikertutako populazioaren ezaugarri soziodemografikoak, legeak eta araudiak, gertakizun bereziak... Amaigabeko zerrenda osa genezake; hautaketa egokia egitea duzu gakoa.

Testuingurua osatzeko gehienbat **bigarren mailako datu** kuantitatiboak zein kualitatiboak erabiliko dituzu. Horietako batzuk modu grafikoan agertzea (mapak, taulak, irudiak...) interesgarritzat jotzen dugu, mota horretako elementuak oso argigarriak direlako. Gogoratu datu guztien iturria zein den zehaztea ezinbestekoa dela. Hala ere, gertaera ezagunak direnean (adibidez, Franco 1975ean hil zela) ez da erreferentzia zehatzik aipatu behar.

Era berean, atalaren luzera kontuan harturik (2-4 orrialde), zenbait informazio eranskinetan jasotzea gomendatzen dizugu (taulak, argazkiak, mapak...). Dena dela, datuak azaltzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu; hau da, euskarri hauek ez direla

gure azalpenen ordezeko, horien osagarri baizik. Gida honen 13. gailan eranskinen gaineko argibideak topatuko dituzu.

Azkenik, eta kokapenari dagokionez, testuingurua marko teorikoaren ondoren kokatu ohi da, askotan kapitulu berean.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. Atala osatzeko informazioaren hautaketari begira, testuinguruaren eta helburuen artean dagoen lotura nabarmentzea.**
- 2. Elementu grafikoaren erabilera sustatzea (ikasleei azalduz elementu grafikoak aipatzean irudiez, taulez, mapez, grafikoez eta bestelako euskarriez ari garela).**
- 3. Ideiak modu argi, zehatz eta sintetiko batean aurkeztearen balioa azpimarratzea.**

8. GAIA. GRAL-AREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK NOLA FORMULATU

GRALak egiteko, gidatzeko eta aurkezteko ikasmaterial honetan proposatu dugun aurkibideari jarraikiz, GRALaren laugarren atal nagusian ikerketaren helburuak eta hipotesiak aurkeztuko ditugu¹¹. Izan ere, atal hau lantzeko beharrezkoa dugu *aurrekari teoriko eta enpirikoetatik ikaspenak atera izana*, baita *testuingurura hurbilketa bat egin izana* ere. Horrez gainera, ezinbestekoa da ondoren jorratuko dugun atalarekin harreman estuak ezartzen hastea, *planteamendu metodologikoa ikerketa helburuen arabera moldatuz betiere*.


Hartara, azpimarratu beharra dago ikerketa-prozesuaren momentu hau erabakigarria izan daitekeela. Atal honetan, **ikerketaren bidez lortu nahi diren emaitzak zehazten ditugu, ikerketaren azken xedea zein den argituz**. Aurrekari teoriko eta enpirikoetan oinarriturik, ekarpen berriak egiteko erreferentzia horietatik harago joatea beharrezkoa dugu. Helburuak eta hipotesiak *egokiak, esanguratsuak* eta, hein batean, *berritzaileak* badira, lanketa hau *ikerketaren interesa, beharra edo garrantzia agerian uzteko* balia dezakegu.

GRALaren lehen zirriborrotik ikerketa-xedea definitzea komeni da, *ikerketa-prozesuan urratsak egin ahala helburu orokorrak nahiz zehatzak moldatuko dituzula begi-bistatik galdu gabe*. Beheko taulan (3. irudian) ikus dezakezun bezala, ikerketaren helburuak, aurrekari teorikoak eta ikerketaren planteamendu metodologikoaren arteko loturak mantentzea ezinbestekoa da. Hirukiaren edozein ertzetan (teoria, helburuak,

¹¹ 2016ko ekainean argitaratutako UPV/EHUko Soziologiako GRALen irakaskuntza gidan ikerketa-lanen egituren bestelako argibideak eskaintzen dira. Horren arabera, GRALaren sarreran (lehen atalean) lanketa hauek egin beharko lirateke: lanaren helburuak eta lan-hipotesiak zehaztu; ikerketaren xedea aurkeztu eta zehaztu; eta gaiaren egoerari buruzko laburpena aurkeztu. Fakultateak proposatutako egitura orientazio moduan eskaintzen da betiere. Horregatik, txostenaren egitura lanaren beharretara moldatzea aholkatzen diegu tutore eta ikasleei.

metodologia) aldaketak txertatzen dituzun bakoitzean (informazioa gehituz edo kenduz, eta abar) beste bi ertzetan landutakoa ere egokitu beharko duzu.

3. IRUDIA: TEORIA, METODOLOGIA ETA HELBURUEN ARTEKO LOTURAK



Iturria: Norberak egina, Ruth Sauturen (2005: 37) irudian oinarriturik.

Aipatutakoa aintzat harturik, GRALaren atal honetan hiru lanketa mota egitea aholkatzen dizugu:

- **Ikerketa mugatzea eta ikerketa-galderen formulazioa:** batetik, lanaren planteamendu teorikoan jorratutako arazoaren artean, *ikerketa honetan aztertuko den gai zehatza zein den argudiatu*; bestetik, *ikerketaren behaketa-unitatea zehaztu*. Aipatutako moduan ikerketa mugatu ostean, horren gainean sortzen diren *ikerketa-galdera espezifikoak* zerrendatu daitezke.
- **Ikerketa-helburuen zehaztapena:** interesekoak zaizkigun ikerketa-galderak ikerketaren helburu bihurtuko ditugu. Bi helburu mota ezberdintzea komeni da: *helburu orokorrak* (edo lehen mailako helburuak) eta *helburu zehatzak* (edo bigarren mailako helburuak).
- **Ikerketa-hipotesien formulazioa:** plazaratutako galderei ematen dizkiegun behin-behineko erantzunak dira; kale-lana egin aurretik gaiari buruz ditugun usteak, alegia. Ikerketa batzuetan hipotesiak zehaztea ez da ezinbestekoa; beharrezko den kasuetan, *helburu bakoitzeko hipotesi bat gutxienez formulatzen* da.

Alderdi formalei dagokienez, GRALetan helburu eta hipotesien atal honek orrialde bat du. Ikerketa mugatu eta ikerketa-galderak aurkeztuz gero (aukerazko lanketa), atal honek 2 orrialde izango ditu gehienez.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Emaizak eta ekarpen interesgarriak lortzera bideratuta dagoen planteamendu osatua garatzea.
- Ikerketa galderen, helburuen eta (izatekotan) hipotesien artean lotura logikoak ezartzea, planteamendu teoriko eta metodologikoarekin koherentea izanik.
- Idatzizko komunikazioan argitasun- eta zehazte-maila altuak erakustea, eta alderdi bakoitzaren aurkezpen-estiloa zaintzea.
- Jarrera propositiboa erakustea.

Ikergaia mugatu eta ikerketa-galderak formulatzeko gakoak

Aurrekari teoriko eta enpirikoetatik abiatuz eta testuingurura hurbilketa bat egin ostean, lehenik eta behin ikergaia mugatzeari ekingo diogu. GRALetan horrelako azalpenik ematea derrigorrezkoa ez den arren, *ikerketa-planteamenduaren egokitasuna nahiz ikertzaile gaztearen heldutasuna erakusteko* lanketa aproposa da.

Ikasleek eta tutoreek kontuan hartu behar dugu ikergaia aukeratzeko dugunean (ikus gida honen 5. gaia) interes-eremua, ikerketa-lerroa edo gaia oso zabalak izaten direla. Ikerketa sozial aplikatuetan gauza bera gertatu ohi zaigu aukeratutako behaketa-unitatearekin: espazio-denbora, unibertsoa eta lagina, esparrua edo kasua zabalegiak dira. Ikergaia “ikergaitza” bihur ez dadin, bi lanketa mota egitea proposatzen dizugu:

Lehena, planteamendu teorikotik kontzeptu, kategoria, dimentsio, definizio edo premisa nagusiak identifikatu, eta ikergaiarekin harremanetan dauden arazoaren artean gai zehatzak aukeratu (*zer ikertuko dut zehazki?*), argudiatu horien egokitasuna (*zergatik erabaki dut fenomeno edo arazoaren dimentsio hori ikertzea eta ez besterik?, oro har, nola mugatu dut gaia?*) eta zure ikuspuntua argitu (*arazoaren gainean dauden ikuspegien artean, zein da nirea?*).

Bigarrena, aurrekari enpirikoetatik eta testuingurutik abiatuz, *behaketa-unitatea zehaztea*. Horretarako, beharrezkoa den guztietan, espazio-denbora aldetik mugak ezarri, unibertsoa eta lagina zehaztu, aldagai nagusiak identifikatu, eta ikerketa-esparrua edo kasua birdefinitu.

Bestalde, ikergaia mugatu eta modu esanguratsu batean berreraiki ostean, galdera edo arazo ugari eta askotarikoak azalduko zaizkigu. Hain zuzen ere, atal hau prestatzeko galdera horiek zerrendatzea da proposatzen dizugun bigarren lanketa. Horretarako:

- **Ikerketa-galdera interesgarrienak soilik zerrendatu**, hots, ikerketa-helburuarekin harreman zuzena dutenak.
- **Ikerketa-galderak kontzeptu, kategoria edo aldagai aldetik aberatsak izatea**, aurrekari teoriko eta enpirikoei esker bildutako ikaspen nagusiak islatuz.
- **Ikerketa-galderak aurkezteko moduak zaindu**: galdera bakoitzean afera bakarra formulatu; galdera labur eta argiak egin eta, nola ez, galdera-formatua eman (galdera-marka, galde-hitza, eta abar).

Ikerketaren helburuak formulatzeko gakoak

Ikergaia mugatu eta ikerketa-galderak proposatu ostean, ikerketaren helburuak formulatzeari ekingo diogu. Horretarako, ikerketa-galdera nagusiak ikerketa-helburu bihurtuko ditugu, bien arteko harreman zuzena bermatuz betiere. Esan bezala, helburuen, teoriaren eta metodologiaren arteko loturak ere ezin ditugu begi-bistatik galdu.

Oro har, GRALetan ikerketa-helburuak zehazteko zailtasun handiak egoten dira. Orain arte identifikatu ditugun arazoen artean, lau nabarmenduko ditugu taula honetan:

5. TAULA. IKERKETAREN HELBURUAK FORMULATZEAN EGITEN DITUGUN OHIKO AKATSAK

1. **Helburu guztiak ez dira garrantzitsuak, esanguratsuak edo interesekoak.** Askotan helburuak erantzuteko ebidentzia nahikoak ditugu jada, eta, horrenbestez, formulatutako helburuak ez dira ezagutza berriak eraikitzekeko baliagarriak.
2. **Eskuraezinak diren helburuak formulatzea;** eskuraezinak, informazioa lortzea oso zaila edo ezinezkoa delako, baliabide edo denbora nahikorik ez dugulako, edo helburuak orokorregiak, ugariak edo askotarikoak direlako. Halako kasuetan, ikerketa bideraezina litzateke.
3. **Ikerketa-helburu orokor eta zehatzen artean harremanik ez egotea,** helburu zehatzak helburu orokorrak zehazteko direla aintzat ez hartzeagatik.
4. **Ikerketaren helburu zehatzak eta ikerketa-teknikak nahastea,** lortu nahi ditugun emaitzak eta emaitza horiek lortzeko beharrezkoak ditugun tresnak (ikerketa-teknikak) edo egin beharreko urratsak (ikerketa-diseinua) ezberdindu behar direnean.

Iturria: Norberak egina.

Aurreko taulan laburbildutako akatsak ekiditeko, helburuak formulatzeko irizpide hauei jarraitzea aholkatzen dizugu:

- **Helburuak esanguratsuak eta egokiak izatea.** *Ekarpen berriak* egitera bideratuta dauden helburuak zehaztea; eta gainera, *egingarriak* izatea, kale lanaren bidez informazio nahikoa eskuratzeko aukera izatea alegia.
- **Helburu orokor eta zehatzak definitzea.** Helburu orokor bakoitzeko bigarren mailako helburuak zehaztea. Ikerketa motaren arabera izaten den arren, GRALetan helburu orokor bat edo bi definitzen dira.
- **Helburuak aurkezteko modua zaintzea.** Lanketa mamitsu baten fruitu izan ohi direnez, helburuak ez dira azaldu edo justifikatu behar. *Zenbakituta dagoen zerrenda batean edo modu eskematikoan aurkeztu* ohi dira.
- **Helburua definitzeko aukeratu duzun aditzari erreparatzea,** lanean garatutako ikuspuntu teoriko eta metodologikoarekin bat eginez. Bada, ikerketa batzuetan: *neurtu, zenbatu, harremanetan jarri, mugatu, definitu, kausalitateak ezarri, deskribatu, sailkatu*; beste ikerketa batzuetan: *ulertu, ezagutu, azaldu, identifikatu, sakondu* eta *interpretatu*; eta badira *eraldatzea, aldatzea, sustatzea, proposatzea, elkarrekin eraikitzea* helburu duten ikerketak ere. Zehaztapen gehien ematen duen aditza tentuz aukeratzea beharrezkoa da.

Ikerketaren hipotesiak formulatzeko gakoak

Atal honi bukaera emateko, laugarrenik eta azkenik hipotesiak zehaztea gomendatzen dizugu. Ikerketa kualitatiboetan ez bezala, kontuan izan ikerketa kuantitatiboetan hipotesiak formulatzea guztiz beharrezkoa dela.

Hipotesiak kale-lana egin aurretik gaiari buruz ditugun usteak dira, eta, zehazki, *frogagarriak, behagarriak edo kontrastatuak* izan daitezkeen usteak edo ideiak, lortutako emaitzen harira *egiaztatuak edo deuseztatuak* izango direnak. Ildo beretik, hipotesia ez da baieztapen bat (tesia), abiapuntu bat baizik.

Oro har, hauek dira hipotesiak formulatzeko orientabide nagusiak:

- **Hipotesi esanguratsu eta egokiak formulatzea,** hau da, zehatzak eta egiaztagarriak.
- **Hipotesien eta helburuen arteko lotura estua izatea.** Ikerketa-helburuetarako behin-behineko erantzunak diren aldetik, helburu bakoitzeko gutxienez hipotesi bat zehaztea gomendatzen dizugu.
- **Hipotesiak aurkezteko modua zaintzea.** Argiak eta ulergarriak izatea, oro har.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. Ikerketa-galderak, helburuak eta hipotesiak esanguratsuak direla eta modu egokian formulatuta daudela bermatzea.**
- 2. Ikerketa-galdera, helburu eta hipotesiak etengabe berrikustea ikerketa-prozesuan zehar, ikerketaren bestelako esparruekin harreman estuak eta zuzenak mantenduz (planteamendu teoriko eta metodologikoarekin eta kale-lanaren garapenarekin nahiz lanaren ondorioekin).**
- 3. Plazaratutako galdera eta helburuak oinarri berri gisa harturik, aurrekari teoriko eta enpirikoen bilaketa bibliografiko zehatzagoa egitea aproposa denetz aztertzea.**

9. GAIA. GRAL-AREN PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA NOLA GARATU

Planteamendu metodologikoren xedea *finkatutako helburuak nola lortuko ditugun eta horretarako erabiliko ditugun teknikak zehaztean* datza. Askotan metodologia, metodoak eta teknikak bereizteko zailtasunak izaten ditugu; besteak beste, bibliografian ere ikuspuntu ezberdinak aurki ditzakegulako.

- **Metodologia** diogunean, gure ikerketa barnebiltzen duen aterki epistemologikoaz ari gara; hau da, galdera honi erantzun behar diogu: *nola ekin behar diogu ezagutzaren sorkuntzari?*
- **Metodoak**, aldiz, ezagutzarako bideari egiten dio erreferentzia eta galdera hauei erantzuten die: *nola aztertuko dut gai hau?, zer bide hautatuko dut?* Ikerketa sozialean aplikatzen diren metodoen artean *kualitatiboa, kuantitatiboa, etnografikoa, biografikoa, historikoa edo partaidetzazko ikerketa-ekintza* ditugu, besteak beste.
- **Teknikak**, ostera, lan-tresna zehatzak dira, eta horien hautaketa galdera honetan oinarrituta dago: *behar dudan informazioa eskuratzeko, zein d(ir)a tresna egokiena(k)?* Ikerketa sozialean aplikatzen diren teknikak dira, besteren artean, *elkarrizketa, bititza-istorioak, eztabaida-taldeak, inkesta, behaketa, tailerrak, produkzio narratiboak edo gorputz-ibilbideak*.

Dakizunez, gure ikerketan zehar modu zuzenean bildu edo ekoizten ditugun datuak **lehenengo mailako datuak** dira, eta kualitatiboak zein kuantitatiboak izan daitezke (adibidez, zuk egin duzun elkarrizketa baten transkripzioa edo zuk diseinatutako inkesta baten bitartez lortutako datuak). Era berean, gure ikerketetan beste batzuek (pertsonek zein erakundeek) sortutako datuez baliatu gaitzake (adibidez, [EUSTAT](#)en datuak erabili ditzakegu). Datu horiei **bigarren mailako datuak** deritzegu, eta, gehienetan kuantitatiboak badira ere, kualitatiboak ere izan daitezke.

Sarritan, gure helburuak lortzeko teknika bat baino gehiago erabiliko ditugu, eta, batzuetan, metodo bat baino gehiago ere bai; ohikoa da, adibidez, metodo kuantitatiboa eta kualitatiboa uztartzea. Oinarri metodologikoa duten konbinazioei artikulazio deritzegu eta, dakizuenez, askotariko artikulazioak erabili ohi dira ikerketa sozial aplikatuetan. Beraz, metodoak eta teknikak ez ditugu modu baztertzailan ulertu behar (*bata ala bestea*), baizik eta errealitatea ezagutzeko bide eta tresna osagarri gisa (*bata eta bestea*).

Atal honetan lanean erabiliko dituzun metodo eta teknikak aukeratu, eta hautaketa horren justifikazioa jorratuko duzu, baita zure lana garatzeko erabiliko duzun diseinu teknikoa aurkeztu ere.

Diseinuari dagokionez, **diseinu ideala** (ikerketaren helburuetara erabat egokitzen dena) eta **diseinu erreala** (taxutuko duzuna) jorratzea gomendatzen dizugu. Diseinu idealetik errealerara jauzi egiteko denbora eta norberaren eskarmentua ezinbesteko elementuak ditugu. Bestalde, gogora ezazu diseinu ideala ez duzula GRALean gehitu behar.

Hona hemen, planteamendu metodologikoaren azpiatalak:

- **Metodoen aukeraketa eta justifikazioa.** Hautaketa zein den zehazteaz gainera, hautaketaren arrazoiak azaltzea duzu lehenengo zereginetakoa: *zein dira bide hau (metodo hauek) erabiltzeko arrazoiak? Zertan datza egokitasuna?*
- **Ikerketa-tekniken aukeraketa eta justifikazioa.** Baliatuko dituzun tekniken deskribapen laburra eta justifikazioa lantzea dagokizu: *zergatik tresna hau(ek) (eta ez beste batzuk)?* Justifikazioa lantzerakoan, baliabideak kontuan hartzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Denbora, giza-baliabideak (zenbat ikertzaile eta zer profil) eta aurrekontua ditugu ohikoenak. GRALen kasuan, denbora eta norberaren eskarmentuari erreparatzea gomendatzen dizugu. Era berean, esku artean izango dituzun *datuen nolakotasuna* –lehenengo edo bigarren mailakoak, kualitatiboak edo kuantitatiboak– zehaztea gomendatzen dizugu.
- **Ikerketaren diseinu teknikoa.** *Laginaren aukeraketa eta justifikazioa, aldagaien operazionalizazioa eta kale-lanaren garapenaren deskribapena* garatzeko uea duzu hau:
 - **Laginaren aukeraketa:** aztertu nahi dugun populazioaren (unibertsoaren) zer lagin hartuko dugun zehaztea. Gogora ezazu lagin mota desberdinak daudela eta mota bakoitzak berezko *errepresentazio eta saturazio-irizpideak* dituela. Azalpen oso orokorra bada ere, datu kualitatiboekin lan egiten dugunean adierazgarritasuna estrukturala da, eta kuantitatiboekin, ordea, estatistikoa.
 - Laginaren aukeraketan erabiliko dituzun **aldagaiak zerrendatu eta operazionalizatzea** (hots, kategorizatzea). Adibide bat jar dezagun.

Demagun aukeratutako aldagai bat adina dela. Adin-tarteak erabiliko dituzu? Hala bada, zein?

- **Kale-lanaren nondik norakoaren deskribapena.** Lehenengo mailako datuekin lan eginez gero, *nola kontaktatuko dituzu ikerlanean parte hartuko duten pertsonak? Non eta noiz egingo dituzu behaketak, elkarrizketak, eztabaida-taldeak...? Parte-hartzearen truke zerbait eskainiko diezu? Datuak nola erregistratu eta nola gordeko dituzu?* Diseinu teknikoaren zehaztasunak (adibidez, zenbat elkarrizketa eta nolako profileko pertsonekin) taula batean jasotzea gomendatzen dizugu.

Idazteko uneari dagokionez, planteamendu metodologikoaren lehenengo zirriborroa marko teorikoa taxutu eta gero (edo bitartean) idatzi ohi da. Atal hori jorratzerakoan zure helburuak, testuinguruan identifikatutako elementu garrantzitsuak eta planteamendu teorikoan eraikitako ikuspuntua kontuan izatea ezinbestekoa duzu. Ikerketa prozesu bat denez, kale-lana (edota bigarren mailako datuen ustiaketa) garatzen ari zaren bitartean aldaketak suerta daitezke. Beraz, metodologiaren atalaren idazketa ez dugu amaitutzat joko kale-lana bukatu arte.

Planteamendu metodologikoa zubi bat dugu marko teorikoaren eta testuinguruaren eta kale-landaren bidez produzitutako datuen azterketaren artean. Hau da, **gure diseinu teknikoak marko teorikoarekin bat etorri behar du**, bien arteko koherentzia ezinbestekoa baitugu ikerketa modu egokian garatzeko eta behar ditugun datu horiek jasotzeko edo ekoizteko.

Idazketaren nolakotasunari erreparatzen badiogu, **zehaztasuna** duzu atal honen ezaugarri nagusia. Esan dugunez, hartutako erabaki bakoitza aipatu eta justifikatu behar dugu, eta, horretarako, ideia gakoak islatuko dituzten hitz zehatz eta neurtuak erabiltzea gomendatzen dizugu. Era berean, taulak eta koadroak oso lagungarriak suerta daitezke, hala nola parte-hartzaileen profilak, eztabaida-taldean edo behaketa espazioen ezaugarriak jasotzeko.

Atal honi 4-5 orrialdeko luzera aurreikusten diogu, eta, beste atal batzuetan bezala, atal honi dagokion informazio osagarria eranskinetan jaso ahal izango duzu (elkarrizketa edo eztabaida-taldeetarako prestatutako gidoiak, ustiatutako inkestaren galdetegia edo behaketen emaitzak jasotzeko txantiloak, besteak beste). Parte-hartzaileek informatutako onespina sinatuko balute, onespeneren eredia eranskinetan gehitu behar zenuke.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Planteatutako helburuak kontuan harturik oinarri sendoak dituen estrategia metodologikoa diseinatzea eta strategiaren hautu bakoitza egokiro justifikatzea.
- Norberaren eskarmentua eta eskura ditugun baliabideak kontuan hartuz, ikerketa-diseinu tekniko erreala (egingarria) taxutzea. Aukeran, diseinatutako ikerketaren mugak azaltzea.
- Idatzizko komunikazioan, ideia gakoak islatzeko hitz zehatz eta neurtuak erabiltzeko trebezia erakustez gain, argudioak antolatzeke eta aurkezteke moduak zaintzea.

Planteamendu metodologikotik kale-lanaren antolaketara

Metodoak eta teknikak aukeratu eta gero, diseinu teknikoa jorratuko dugula aipatu dugu. Azken atal honetan, diseinu teknikoaren eta kale-lanaren antolaketari buruz hitz egingo dugu. Hau da, *zer da zehatz-mehatz egingo duguna? Zenbat elkarrizketa eta zenbat eztabaida-talde? Nolako profileko pertsonekin?* Esan bezala, bi aukera dituzu: zuzenean diseinu errealarari ekitea, edo, aurretik, diseinu ideala taxutzea. Ikerketaren arabera, bigarren aukera interesgarria izan daiteke; edozein kasutan, zure tutorearekin adostu beharreko puntua litzateke.

Erabiliko ditugun tresnak eta parte-hartzaileen profilak zehaztu dituzunean, aldi berean egin daitezkeen bi lani heldu beharko diezu: 1) teknikak praktikan jartzeko materialak sortu (gidoiak, txantiloak...) eta 2) parte-hartzaileak kontaktatu. Prestaketa-lan horietan oinarritzen da kale-lanaren arrakasta.

Lehenengoari dagokionez, ardura osoa zure eta zure tutorearen esku dago. Bigarrena, aldiz, korapilatsuago suerta daiteke, eta arreta berezia merezi du. **Kontaktuak nola egingo dituzun** (zuk zeuk, elur-bola erabiliz, talde jakin batzuen bitartez, lagun bitartez...) erabakitzea pauso garrantzitsua da, zeren zure kontrolpean ez dauden arrazoiengatik luza baitaiteke prozesua. Lan hauek kronograman kokatzeak eta aurreikusitakoa betetzen ari zarenetz aldiro egiaztatzeak lagunduko dizute.

Kontaktatzeaz gain, gogoratu elkarrizketak, eztabaida-taldeak, tailerrak eta horrelakoak egitean **espazioaren aukeraketa** funtsezkoa dela; hots, parte-hartzaileentzat erosoak diren lekuak hautatzea oso garrantzitsua da (haien etxeak, maiz erabiltzen duten espazioen bat edo, bestela, espazio neutroak). Era berean, parte-hartzaileekin elkartu aurretik ezinbestekoa da beharrezkoa den **materiala prest**

duzula egiaztatzea (adibidez, grabagailuak pilak dituela, behar dituzun paperak hartu dituzula eta abar).

Zu zeuk diseinatutako edo tresnatutako inkesta bada erabiliko duzun teknika, ezinbestekoa duzu **inkesta motaren aukeraketari** zein datuak ustiatzeko maneiaturiko duzun **pakete informatikoaren** hautaketari arreta berezia jartzea.

Inkestekin lan egin ezean, datuak jaso ahala, **datuak ustiatzen** hastea gomendatzen dizugu. Hau da, egindako saio baten transkribapena biharamunean egitea askoz ere errazagoa da hamabost egun pasatu direnean baino; zer esanik ez behaketan hartutako oharren inguruan. Horietaz gain, saioen ostean datuak aztertzeko baliagarriak izan daitezkeen bestelako informazioak jasotzen duen txostena idaztea oso lagungarri suerta dakizuke. Inkesta lanabes baduzu, galdetegi guztiak jaso arte ezin izango duzu ustiaketa abiatu.

Azkenik, biziki gomendatzen dizugu **ondorioetan jasotzea planteamendu metodologikoan suerta daitezkeen aldaketak eta horien emaitzak**, zuk zeuk gerora izandako ideiak (adibidez, gauza batzuk beste modu batean planteatzea) eta, oro har, atal honen inguruko hausnarketak.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

1. Diseinu idealaren eta errealaren arteko aldeak azaltzea (zer egin nahi nuke / zer egin dezaket), eta biak taxutzea egokia denetz ikaslearekin batera erabakitzea.
2. Helburuen, marko teorikoaren eta planteamendu metodologikoaren arteko loturak lantzearen garrantzia azpimarratzea.
3. Diseinu teknikoa sendoa eta gauzagarria dela egiaztatzea.
4. Tekniken *idealizazioa* saihestea, teknikien ahalmen eta ezaugarriak balioestearen beharra sustatzea.

10. GAIA. GRAL-AREN IKERKETAREN EMAITZAK NOLA AZTERTU

Atal honetan *azterketa empirikoari* ekingo diogu, *datuen analisiari* hain zuzen. GRALaren lanketa osoa artisautza-lana bada ere, ezaugarri horrek garrantzi berezia hartzen du une honetan, *zure ekarpen pertsonalen eta sormenaren bitartez* osatuko baituzu emaitzen azterketa. Gogoratu azterketa edo analisisia diogunean datuak aurkezteaz baino zerbait sakonagoaz ari garela, preseski *informazioaren irakurketaz edo interpretazioaz*. Hau da, jorratutako marko teorikoa, ezarritako helburuak eta diseinatutako planteamendu metodologikoa kontuan harturik, *nola ulertzen eta interpretatzen ditugu esku artean ditugun datuak?*

Interpretazioa garatu ahal izateko lehenengo urratsa ikerketan zehar jaso edo sortu dugun **informazioa irizpide batzuen arabera sailkatzea** da. Datuen azterketa aurkezteko azpiatalak ezberdintzea, eta datuen lehenengo antolaketarako balizko azpiatal horiek baliatzea gomendatzen dizugu. Hauexek dituzu informazioa antolatzeko erabil daitezkeen irizpideetako batzuk:

- **Helburu zehatzen** edo hipotesien arabera. Hau da, helburu zehatz bakoitzeko datuen azterketaren azpiatal bat taxutzea.
- Marko teorikoan eztabaidatutako **kontzeptu** edo **gai gako**en arabera antolatzea informazioa, kontzeptu/gai gako bakoitzeko azpiatal bat sortuz.
- Elkarrizketa edo eztabaida-taldeak egin badituzu, horietarako eraikitako **gidoia** erabil zenezake gida moduan. Hau da, gidoian identifikatutako gai bakoitza azpiatal batean garatu.
- Batzuetan, batez ere bizitza-historiak edo gorputz-ibilbideak erabili badira, analisisia **kasuka** antola daiteke.

Irizpideak zure tutorearekin alderatu eta gero, hona hemen aurrera egiteko gure proposamena (ikus 6.taula):

6. TAULA. IKERKETAREN EMAITZAK AZTERTZEKO URRATSAK

1. **Informazioa sailkatu.** Informazio motaren arabera bide ezberdinak hartu ohi dira. Hona hemen adibide batzuk.
 - **Elkarrizketa edo eztabaida-taldeak** egin baditugu, transkripzioak¹² izango ditugu. Transkripzioetan atal bakoitzeko interesgarria den informazioa kolore batekin markatu dezakegu. Gorputz-ibilbideekin gauza bera egingo genuke, kasu-azterketa ez badugu lehenetsi.
 - **Estatistika-datuekin** lanean ari bagara (Eustat-ek tresnatutako inkesta batekin adibidez) azpiatal bakoitzean zer aldagai aztertuko ditugun erabaki beharko dugu, baita aldagaien arteko zer harreman ikertuko ere.
 - **Dokumentuak** aztertu behar baditugu, bi aukera aurreikusten ditugu: dokumentuak atalka sailkatzea (hau da, dokumentuak zuk aldeztu aurretik finkatutako gairen arabera sailkatzea) edota dokumentu bakoitzean gai ezberdinekin lotutako auziak aztertzea. Azken kasua horretan, dokumentuen edukia jasotzeko fitxa bat prestatzea gomendatzen dizugu.
2. **Sailkatutako informazioa multzokatu.** Hau da, azpiatal bakoitzean erabiliko duzun informazio guztia bateratu, berriz irakurri/begiratu eta antzekotasunak zein ezberdintasunak identifikatu. Testuan zehar aurkeztuko dituzun informazioen lehenengo aukeraketa egitea ere gomendagarria da (hau da, zer aipu, nolako taula, zer kartel...).
3. **Interpretazioa eraiki.** *Zer harremana dago askotariko aldagaien artean? Nolako diskurtsoak/portaerak nagusitzen dira eta zeri erreparatu beharko genioke horiek ulertzeko?* Egitasmo horri ekiteko zure ikerketako galderak eta helburuak gogoan hartzea gomendatzen dizugu; era berean, mapa kontzeptualak, marrazkiak edo diagramak erabil ditzakezu. Halaber, marko teorikoan zein testuinguruan azaldutakoak jasotako informazioan zer isla duen aztertu beharko duzu; hau da, esku artean duzun informazioa marko teorikoarekin eta testuinguruarekin alderatu, eta haien arteko loturak eraiki.
4. **Emaitzen analisisa berriz irakurri**, eta, beharrezkoa balitz, azpiatalen egitura berregin.
5. **Behin betiko azpiatalen oreka** (edukiari zein luzerari dagokienez) eta **koherentzia egiaztatzea** da.

Iturria: Norberak eginda.

Idazteko uneari dagokionez, azterketaren emaitzak kale-lana bukatu eta gero idatzi ohi dira. Dena dela, kale-lana garatu bitartean zein transkripzioak edo datu kuantitatiboan lanketa jorratu bitartean hartutako oharra edo sortutako ideiak oso lagungarriak izaten dira. Beraz, oso garrantzitsua da ohar eta ideia horiek guztiak ulertzeko erantza idaztea eta berreskuragarri izateko erantza gordetzea. Datuen azterketari 10-15 orrialdeko luzera aurreikusten diogu.

Idazketaren nolakotasunari erreparatzen badiogu, **jasotako edo sortutako informazioari** leku egin behar diozu, baita horren gaineko **zure interpretazioari** ere.

¹² Transkripzioak azterketarako lanabesak dira baina ez ditugu GRALen erantsi behar. Ikus gida honen 13. gaia.

Lehenengoari dagokionez, datu kuantitatiboak zenbatutako taula eta grafikoetan aurkeztea dugu ohikoena; elkarrizketa, bizitza-historiak edo gorputz-ibilbideak, aipuen bitartez, eta behaketak, norberak egindako deskripzioen bitartez. Era berean, interpretazioa errazten dituzten mapa kontzeptualak, diagramak eta argazkiak erabili ohi dira, besteak beste (ikus 7., 8. eta 9. taulak).

Bigarrenari dagokionez, **jasotako informazioa interpretatu** behar dela azpimarratu nahi dugu berriz eta hori zuk zeuk egin behar duzula. Atal honetan zure ikuspegia eta zure ahotsa agertu behar dituzu: *Zer dio egileak aztertzen ari den fenomenoari buruz? Nola ulertzen du aztertzen ari den gertakari hori?* Esan dugun moduan, sormenerako unea dugu hau, baina kontuz: oinarritutako sormena erabili behar duzu, GRALaren ikerketa-prozesuan esan, idatzi eta hartu dituzun erabakiekin *koherentea* dena.

Hona hemen Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fakultatean burututako GRALetatik hartutako zenbait adibide:

7. TAULA. INFORMAZIOA AURKEZTEKO BIDEAK: AIPUAK

“Nire herrian, nik bai. Sentitzen naiz oso baloratua eta sentitzen det nire hitza hartzen dutela kontuan eta beste ildoak lantzen ditugunean ere, uste det kontuan hartzen dutela nik esaten detena. Beti ere idealizaziorik gabe, baina, bai sentitzen naiz baloratua”. (Saioa)

Iturria: Galardi, 2017: 34.

Haxe duzu aipua aurkezteko modua. Gogoratu aipua testu nagusitik ezberdindu beharra dagoela, eta **anonimatua** mantentzeko asmatutako izenak erabili. Era berean, elkarrizketatuaren izenaren ondoan laginaren aukeraketan baliatutako aldagaien bateko kategoria gehitu daiteke (Saioa, 24 urte), hala nola elkarrizketaren zenbakia (Saioa, E1) edo asmatutako abizena (Saioa Kortabitarte).

8. TAULA. INFORMAZIOA AURKEZTEKO BIDEAK: TAULAK

Taula 2. Seme-alabak ez dituzten emakumeen proportzioa adin zehatzetan, belaunaldiaren arabera, EAE, 2011, %


	20 urte	25 urte	30 urte	35 urte	40 urte	45 urte	45 urte <
1977-81	%95,00	%89,79	%69,89	%58,66	-	-	-
1972-76	%95,26	%90,63	%70,24	%40,60	%35,923	-	-
1967-71	%92,75	%82,55	%63,39	%38,93	%29,10	%28,32	-
1962-66	%90,86	%73,94	%50,05	%29,21	%21,47	%19,68	%19,68
1957-61	%90,47	%62,88	%35,03	%21,17	%17,51	%16,66	%16,55
1652-56	%93,11	%53,91	%23,96	%16,22	%14,75	%14,48	%14,48
1946-51	%95,03	%51,65	%19,59	%11,06	%8,53	%8,12	%8,12

Iturria: Norberak egina, Eustateko 2011ko Inkesta Demografikoko datuak erabiliz.

Iturria: Solbes, 2016: 20.

Hona hemen datu kuantitatiboak aurkezteko aukeretako bat, taulak. Horietaz gain, grafikoak ere lagungarriak dira. Zu zuek zure taula eta grafiko propioak eratzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Era berean, taularen izenburua eta iturria modu egokian jasotzea ezinbestekoa da (ikus Martinez eta Legarreta, 2017).

9. TAULA. INFORMAZIOA AURKEZTEKO BIDEAK: MAPA KONTZEPTUALA



Iturria: Robles, 2014: 29.

Kontzeptuak argitzeko zein haien arteko harremanak ikusarazteko, mapa kontzeptualak dituzu lanabes egokia. Horietako edozein bide erabiltzen duzula, gogoratu halako tresnek informazio garrantzitsua laburbiltzea eta irakurleari modu erraz zein argian helaraztea dutela xedea. Txostenean txertatzean grafikoaren edo irudiaren tamaina eta koloreak egokiak direla ziurtatu.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATU NAHI DIREN GAITASUNAK

- Ezagutza teorikoak eta estrategia metodologikoa praktikan aplikatzea.
- Iturri primario zein sekundarioak erabiliz, datu berriak, esanguratsuak nahiz fidagarriak sortzea, antolatzea, aztertzea eta aurkeztea.
- Arazoei eta behar sozialei buruzko informazioa era sintetikoan analizatzea, genero-, klase- eta etnia-desberdintasunei arreta berezia jarriz (Soziologia Graduko zeharkako gaitasuna).
- Datuen eta praktika sozialen gaineko jarrera kritikoa garatzea (Soziologia Graduko zeharkako gaitasuna).
- Jarrera erreflexiboa eta sormena erakustea.

Ikerketaren emaitzak lantzeko eta aurkezteko zenbait aholku

Ikerketa-prozesuaren une honetan zalantzak izatea oso ohikoa da, burura datorkigun lehenengo galdera *eta orain zer???* izan ohi da. Esan dugunez, sormenerako momentua dugu hau, eta sormenak pausatzearen beharra izaten du. Beraz, kronograma egiterakoan fase honi denbora eskainiko diozula aurreikustea gomendatzen dizugu.

Informazioa lantzen ari zaren bitartean, ziurtatu une oro eskura izango duzula apunteak hartzeko zerbait. Dagoeneko aipatu dugunez, oharrak modu ulergarrian jasotzea oso garrantzitsua da.

Aurkezpenari dagokionez, **informazioa neurri egokian plazaratu; ez gehiegi, ez gutxiegi**. Neurriaren egokitasuna zure tutorearekin egiaztatzea gomendatzen dizugun arren, hona hemen adibide pare bat. Elkarrizketekin lan egin baduzu, aipuak eta aipuen neurria ondo aukeratzea ezinbestekoa da; aipu asko eta oso luzeak erabiltzeak ez du laguntzen. Estatistika-datuak izan badituzu esku artean, ez txertatu testuan zuk jorratu dituzun taula eta grafiko guztiak; informazio interesgarriena islatzen dutenak erabili. Grafikoak ondo aukeratzea ere oso garrantzitsua da, eta islatu nahi den aldagaien arteko harremanaren arabera hautatuko ditugu.

Teknika bakoitzaren bitartez lortutako datuak **teknika horren oinarrian dauden irizpideen arabera interpretatu**; hau da, kontuan izan zergatik erabaki zenuen teknika horrekin lan egitea eta lortutako informazioak zer irakurketak ahalbidetzen dituen (eta zein ez). Era berean, askotariko teknikak erabili badituzu, gai berdina aztertzeo informazio ezberdina erabiltzea oso interesgarria bada ere, gogoratu datuen irakurketa

iturrien araberakoa dela. Beraz, azterketa egiterakoan datu horiek nola lortu dituzun eta nolako irakurketa ahalbidetzen duten gogoan izan.

Amaitzeko, planteamendu teorikoarekin loturak eraikitzerakoan, saihestu aipu bibliografikoen erabilera eta errepikapena. Horren ordez, ideia horiek zure hitzetara ekartzea gomendatzen dizugu.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. Datuen azterketa antolatzeko irizpideak ikaslearekin eztabaidatzea eta adostea.**
- 2. Datuen azterketak helburuetan zein marko teorikoan oinarritu behar duela azpimarratzea, eta atalen arteko loturen garrantzia gogora ekartzea.**
- 3. Ikaslearen sormena bultzatzea, betiere koherentziarako beharra azpimarratuz.**

11. GAIA. GRAL-AREN ONDORIOETAN ZER PLAZARATU

Ikerketa-txostenaren ondorioetan *egindako lanari bukaera* ematen diogu. Zehazki, *lanaren emaitza nagusiak aurkezteko* momentua litzateke hau, baita *lanari esker egindako ekarpen garrantzitsuenak nabarmentzeko* unea ere. Horregatik guztiagatik, nahiz eta aurreko atalekin loturak ezartzea ekidiezina izan, ezin dugu lanaren laburpen huts bat aurkeztu.

Lanetik **ondorio nagusiak** ateratzeko *ikerketaren xedeari, helburuei eta hipotesiei* helduko diegu beste behin ere. Oso lagungarria izan daiteke plazaratutako arazo eta galderei banan-banan erantzutea. Halaber, planteamendu teorikoarekin loturak ezarriz, ikergaia mugatzeko *kontzeptu eta kategoria nagusien egokitasunaz* mintzo zaitezke.

Aipatutakoaz gain, ikerketa sozial aplikatuetan *aldagaien nolakotasunei* erreparatzea beharrezkoa izan daiteke. Lanketa hori hainbat modutan egin dezakezu:

Batetik, zure ikerketan aintzat hartutako *aldagai bakoitzak eragina izan duen ala ez duen izan* ondoriozta dezakezu. Adibidez, diskurtso eta praktika sozialen azterketa egin baduzu, sexu-genero aldagaiak zer-nola eragin duen azaltzea beharrezkoa izan daiteke.

Bestetik, zure ikerketan aintzat hartu dituzun aldagaiak gurutzatzean zer emaitza interesgarri lortu dituzun plazaratu dezakezu, diskurtso eta praktika sozialen azterketan sexu-genero eta klase sozial aldagaien artean egon daitezkeen harremanak ezarriz, esaterako.

Azkenik, baliteke zure lanaren diseinuan aldagai batzuk kontuan ez hartu izana eta, ikerketan aurrera egin ahala, gaia jorrazteko horien beharraz jabetu izana. Horrela balitz, hauxe duzu aipatutako gabezia azaltzeko unea, aurrera begira kontuan hartu beharreko aldagaiak iradokiz.

Bestalde, **proposamenak egitea** ikerketa-helburu gisa finkatu baduzu, proposamen horiek ondorioekin batera aurkeztea egokia izan daiteke.

Bukatzeko, atal honetan zure **lanaren balorazio kritikoa** egitea gomendatzen dizugu. UPV/EHUko Soziologiako GRALetan gaur arte horrelako lanketarik egitea espresuki eskatu ez den arren, ikas-prozesu batean murgilduta egonik eta GRALean graduko ikas-prozesuan zehar jasotako eduki, gaitasun eta trebetasunak bildu, aplikatu eta garatu nahi direla kontuan izanik, zure lanaren gaineko balorazio kritikoa txertatzea oso gomendagarria da. Balorazio kritikoa, *egindako lanaren hutsuneak edo mugak aitortzeaz* gainera (denbora, baliabide eta eskarmentu falta izaten dira GRALak egiteko oztopo nagusiak), *egindako ekarpenak nabarmendu eta aurrera begirako ikerketa-ildoak proposatzen* ditugu.

Laburbilduz, atal hau prestatzeko hiru lanketa mota egitea aholkatzen dizugu, galdera gako hauei erantzunez:

- **Ondorio nagusiak:** *Zein dira lan honi esker lortu ditudan emaitza nagusiak? Zein dira lanean egin ditudan ekarpen interesgarriak? Nola erantzuten diet ikerketa-galdera, helburu eta hipotesiei? Nola baloratzen dut erabilitako diseinu metodologikoa? Zein dira aldagaien arteko harremanak? Zein dira ikergaia mugatzeko garrantzitsuak diren kontzeptu eta kategoria teorikoak?*
- **Ikerketako helburuen artean proposamenak egitea badago, proposamen horiek atal honetan txertatu.**
- **Lanaren balorazio orokorra:** *Zein dira jorratu gabe geratu diren alderdiak? Zer nolako ekinbideak bideratu ditut ikerketan zehar topatu ditudan oztopo edo zailtasunei aurre egiteko? Zein dira nire ikerketaren potentzialtasunak? Eskaini ditudan oinarrietatik abiatuz, zein dira aurrera begira proposatzen ditudan ikerketa-lerro berriak?*

GRALetan atal honek 2 edo 3 orrialde izaten ditu. Gogoan izan *burututako lanaren emaitza nagusiak eta interesgarrienak* eskainiko dizkiozula irakurleari, eta hark argi ikusi behar duela *nola heldu zaren ondorio horietara*. Horretarako, *aurkeztutako lanean oinarritu* behar duzu, erreferentzia berriak (autoreak, ikuspegiak, eta abar) txertatu gabe. Era berean, lan honetan *zuk zeuk egindako ekarpenak nabarmendu* behar dituzunez, aipuak ekiditea gomendatzen dizugu.

Ondorioak lana bukatzean idatzi ohi dira. Hala ere, kale-lanaren analisia egin ahala ondorioen lehen zirriborroa prestatzea aholkatzen dizugu, ikerketaren xede, helburu eta hipotesiak begi-bistatik galdu gabe.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Lan osoan zehar maila teoriko, metodologiko eta enpirikoan landutako informazio garrantzitsuena identifikatzea eta alderatzea; ekarpen nagusiak argudiatzeko oinarri sendoak aurkeztea; esanguratsua ez den informazioa baztertzea.
- Ikerketa-prozesuan topatutako arazo, oztopo eta zailtasunen jabe izatea, aterabideak bilatzea, eta aurrera begirako ildo berriak proposatzea.
- Begirada kritiko, logiko, deduktibo, sortzaile eta irekia garatzea.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

1. Ondorioen lehen zirriborroa prestatzeko eskatzea, ikerketako helburu eta hipotesien artean loturak ezartzearen garrantzia azpimarratuz.
2. Ondorioen alderdi formalen garrantzia gogora ekartzea.

12. GAIA. GRAL-AREN BIBLIOGRAFIA NOLA ERAIKI

Lan akademiko orotan bezala, GRALean *aipatutako erreferentzia guztiak* bukaerako bibliografian jasotzen dira. Txostenean aipatu ez arren, gaian sakontzeko gomendagarriak diren beste lan batzuei ere lekua egitea interesgarria izan daiteke. Bibliografia ez ezik, zenbait lanetan *webgrafia* (web-orriak, webguneak, blogak, eta abar) eta *filmografia* (dokumentalak eta pelikulak bereziki) ere aipatu behar dira.

Ikasmaterial honetako 3. gaian bibliografia, aipuak eta originaltasun-konpromisoaz aritu gara. Testuan zehar txertatzen ditugun aipuekin batera, gogora dezagun bukaerako bibliografian GRALaren egileak *zintzotasun akademikoa* erakusten duela bereak ez diren ideiak aitortzen dituelako. Halaber, *gaian sakontzeko edo ezagutzan aurrera egiteko konpromisoa* adierazi, eta irakurleei jatorrizko iturrietara gerturatzeko aukera eskaintzen die.

Azken txostenean bibliografia aurkezteko modu jakin batzuk daude. [Gradu Amaierako Lanen arautegian](#) zehazten da graduan landutako estiloetako bati jarraitu beharko diozula (APA, UNE, Harvard, etab.). Zuk zeuk erabaki dezakezu zer estilo erabili. Hala ere, gure gomendioa **Harvard sistema** erabiltzea da, Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren arloan sistema hori erabiltzeko joera nagusia baitago. Zehazki, Harvard sistemaren barruan American Psychological Association-ek garatutako ereduari jarraitzea gomendatzen dizugu, hau da, **APA estiloari**.

Bibliografian jasotzen diren erreferentziak **alfabetikoki ordenatu** behar dituzu. Horretarako egilearen edo egileen lehen abizenen oinarrituko zara. Era berean, bukaerako bibliografian **genero-ikuspegia txertatzea** oso beharrezkotzat jotzen dugu. Emakumeek zientzian egindako ekarpenak agerian uzteko *abizenarekin batera egilearen izena aipatzea* aholkatzen dizugu.

Bestalde, kontuan izan **erreferentzia mota bakoitza aipatzeko arau ezberdinak** daudela. Horrela, bada, erreferentzia molde bakoitza modu jakin batean aipatzen da: liburuak, aldizkari edo egunkarietako artikulua, tesiak eta mintzaldiak, filmak, Youtubeko bideoak, liburu elektronikoak, web-orri eta webguneak, argitaratutako konferentziak eta argitaratu ez den ikastaro edo konferentzia batean jasotako edukiak. Arau zehatzei jarraitzeko Jone Martinez eta Matxalen Legarretaren *Gizarte eta Komunikazio Zientzietan bibliografia eta aipuak txertatzeko moduari buruzko gidaliburu* (2017) erabil dezakezu.

Azkenik, bibliografia modu zuzen eta zehatz batean aurkezteko Harvard sisteman onartzen diren **laburtzapenak erabiltzea** gomendatzen dizugu:

10. TAULA. BUKAERAKO BIBLIOGRAFIA OSATZEAN HARVARD SISTEMAN ONARTUTAKO OHIKO LABURTZAPENAK			
Laburdura euskaraz	Laburdura gaztelaniaz	Laburdura ingelesez	Esanahia euskaraz
zuz.	dir.	dir.	zuzendaria
argit.	ed.	edn.	argitaraldia
arg.	ed., eds.	ed., eds.	argitaratzailea(k)
d.g.	s.f.	n.d.	datarik gabe
zk.	no., nos.	no., nos.	zenbakia(k)
op. cit.	op. cit.	op. cit.	aipatutako lanean
berrinp	reimp.	rpt.	berrinprimaketa
lib.	vol., vols.	vol., vols.	liburukia(k)

Iturria: Martinez eta Legarreta (2017: 8), moldatua.

Bukaerako bibliografia egokiro osatzea lan nekeza izaten da. Horregatik, hain zuzen ere, hobe da testuan zehar **aipuak idatzi bitartean bibliografia pixkanaka eraikitzen hastea**. Tutoreak jasotzen dituen behin-behineko dokumentu edo zirriborro guztietan bibliografia egokiro aurkeztea heldutasunaren seinale ere bada.

Lanaren hastapenetatik, hots, lehen proposamena idazten duzunik, **erreferentziak modu automatikoa txertatzea ahalbidetzen duten bibliografia-gestoreak erabil** ditzakezu. Ikasmaterial honen bigarren eranskinean bibliografia-gestoreen gaineko argibideak topatuko dituzu.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Lan akademikoa egiteko eta aurkezteko heldutasuna izatea, bibliografia modu zehatz, zuzen eta egoki batean emanaz: testu nagusian aipatutako erreferentzia guztiak jasotzea, aipatzeko estiloa eredu jakin bati jarraitzea (APA eta abar).
- Zintzotasun akademikoa eta ezagutzan aurrera egiteko konpromiso zientifikoa erakustea.
- Bibliografia-gestoreak eta antzeko informatika-programetan trebatzea.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

1. Hasierako zirriborro eta behin-behineko dokumentuetan ere bibliografia modu egokian txertatzeko eskatzea.
2. Gestore bibliografikoen erabilera sustatzea.
3. Azken txostenean bibliografia aipatzeko arauak jarraitu direla ziurtatzea.

13. GAIA. GRAL-AREN ERANSKINETAN ZER JASO

Ikerketa-txostenaren eranskinetan ikergeia, ikerketa-prozesua edo lortutako emaitzekin estuki harremanetan dauden *material osagarriak* aurkezten dira. Ikerketaren oinarriak eta behar-beharrezkoak diren erreferentzia guztiak testu nagusian jaso ditugu; eranskinetan, aldiz, *ikerketaren urrats bat azaltzeko edo esparru bat osatzeko dokumentazio osagarria*. Gainera, *Soziologiako GRALen irakaskuntza-gida*n aipatzen den bezala, eranskinetan *lanaren originaltasuna adierazten duen dokumentu oro gehitzen* da; epaimahaiarentzat *egindako lanaren froga* izan daitekeen guztia, hain zuzen ere.

Eranskinak ez dira, horrenbestez, burututako ikerketaren “soberakinak”. Lanean eranskinak txertatuz gero, garrantzitsua da zer-nolako informazioa jasoko duzun erabakitzea. Horretarako, *lanaren osotasuna eta konplexutasuna erakusteko* baliagarriak diren aztertu behar duzu. Dena dela, eranskin asko ez sartzeari aholkatzen dizugu; hau da, ondo neurtzea eranskin mota eta kopurua.

Aipatutakoaren harira, *zer-nolako eranskinak gehi ditzakezu eta zertarako?* Hona hemen proposamen batzuk:

- **Glosategiak eta laburduren zerrendak** planteamendu teorikoa osatzeko bereziki lagungarriak izan daitezke.
- **Kronologiak eta irudiak** (ilustrazioak, argazkiak, mapak...) testuinguruaren berri emateko oso baliagarriak dira.
- **Galdetegiak, elkarrizketetarako gidoiak, behaketa-fitxak** eta, oro har, ikerketa-diseinuan erabilitako euskarriak planteamendu metodologikoa osatzeko erabil daitezke.
- **Kale-lanaren parte diren dokumentu** osagarriak aurkez ditzakezu (adibidez, elkarrizketa sakonen gidoiak edo behaketaren argazkiak), horrelako euskarririk

erabili baduzu. Kale-laneko parte-hartzaileek informatutako onespena sinatu badute, onespeneren eredia eranskinetan jaso dezakezu.

Soziologiako ikerketa-lanetarako **GRALen luzera 10.000-12.000 hitzekoa da, eranskinak kontuan hartu gabe.**

Eranskinak lanaren bukaeran aurkezten dira, testu nagusitik bereiz (portada bat erantsiz, zerrendatzeko moduak zainduz, etab.). Testu nagusia eta eranskina lotzeko modu erraz bat aukeratu behar duzu betiere.

Azkenik, kontuan izan aurkezten dituzun euskarri guztiek alderdi formalak bete behar dituztela (taulak, irudiak edo grafikoak aurkezteko ohiko formatuak, transkripzioa aurkezteko irizpideak, eta abar).

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Informazioa garrantziaren arabera sailkatzea, baliotsua den informazio osagarria edo gehigarria identifikatzea eta aurkeztea.
- Informazio osagarria modu zehatz, ordenatu eta koherente batean aurkeztea.

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

1. GRALean eranskinak bilduko diren erabakitzea. Eranskinetan jasoko den informazio mota eta dokumentazio horren funtzioak zehaztea.
2. Testu nagusiaren eta eranskinen arteko loturak bermatzea.
3. Eranskinen edukiak eta alderdi formalak zaintzea.

14. GAIA. GRAL-ETAN AHOZKO AURKEZPENEA NOLA EGIN

Ahozko aurkezpena GRALaren *itxiera-ekitaldia* da, eta lanaren ebaluazioan eragin zuzena du. Beraz, nahiz eta nekatuta egon eta lehenbailehen bukatzeko gogoia izan, denbora eta arreta eskaini behar diozu ahozko aurkezpenaren prestaketari, bai eta pentsatutakoa eta landutakoa zure tutorearekin egiaztatu ere.

Gogoratu jorratutako lana eta ikerketa-prozesuan *ikasitakoa beste batzuekin partekatzeko abagunea* dela aurkezpena. Ez ezazu epaiketatzat jo, hilabeteetan esku artean izan duzun *lanari buruz aritzeko eta ekarpenak jasotzeko aukera* baita. Beraz, tramite hutsa ez den eta prestatu behar den ekitaldiari buruz ari gara.

Haxe duzu GRALaren ahozko aurkezpenaren egitura [Soziologiako GRALen irakaskuntza-gidaren](#) arabera:

“Ikasle bakoitzak bere Gradu Amaierako Lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak aurkeztu beharko ditu. Eta, ondoren, epaimahaiko kideek egin eta eskatu ahal izango dizkieten galdera, azalpen, iruzkin eta iradokizunei erantzungo die. Gradu Amaierako Lanaren defentsak, gehienez ere, 20 minutuko iraupena izango du. (10 minutu ikaslearen aurkezpenerako, 5 minutu epaimahaiaren oharretarako eta 5 minutu ikaslearen erantzunerako)” (UPV/EHU, 2016: 8).

Eta zer da zehazki aurkeztu behar dena? Nola antolatu zure ekarpena? Hona hemen gure proposamena:

- **Sarrera modukoa.** Atal honetan aurkezpenaren nondik norakoak laburbilduko ditugu, hau da, zertaz eta zer ordenatan hitz egingo dugun. Zure izena, lanaren izenburua eta tutorearen izena ere aipatzea gomendatzen dizugu.
- **Marko teorikoari** erreferentzia laburren bat egin. Oso denbora gutxi duzunez, aipamen bat baino ezin da izan. Bide hauetako bat har dezakezu: hautatutako

ikuspegia zein izan den esatea, erabilitako kategoria garrantzitsuenak zerrendatzea edo autorerik garrantzitsuenak aipatzea.

- **Ikerketaren helburuak** (orokorrak eta zehatzak) azaldu; hots, *zer ikertu dut* galderari erantzun.
- **Garatutako diseinu metodologikoa** aurkeztu; hau da, *ikerketa nola egin dut* galderari erantzun.
- **Ikerketaren emaitzen laburpena** eta **ondorioak**; hots, *zer aurkitu dut* galderari erantzun. Atal hau duzu aurkezpenaren muina, zuk zeuk topatutakoa ezagutaraztea.
- Lanaren **indarguneak eta ahulguneak**. Hauxe duzu zure lana defenditzeko une garrantzitsua, eta atal hau prestatzeko zure tutorearen aholkuak oso lagungarriak izango dira. *Zer da modu egokian egin duzuna? Eta zer arlo hobetu zitezkeen?*
- Ikerketan jarraitzeko asmoa bazenu, *aurrera begira nola jarraituko zenuke gai honi buruz ikertzen?* Puntu hau jorratzea ez da derrigorrezkoa, baina heldutasuna eta sendotasuna erakusteko baliagarria, bai.
- Ikasle batzuek **bibliografia** ere aurkezten dute. Aurkezpenerako dagoen denbora tartea dela eta, ez dizugu horrelakorik gomendatzen. Bibliografia aurkeztea erabakiko bazenu, erreferentzia nagusiak soilik hautatu.

Baina nola egin hori guztia 10 minutuan? Bai, **10 minutu baino ez dituzu ahozko aurkezpena egiteko**, eta denbora errespetatzea oso garrantzitsua da, bai epaimahaiari begira, bai beste ikasleei begira (egun berean aurkezpen bat baino gehiago izaten baitira, bata bestearen atzetik). Era berean, kongresuetan edo bestelako ekitaldi publiko akademikoetan gure ekarpenak egiteko alde aurretik finkatutako denbora tartea izaten dugu, eta hauxe duzu tarte horietara moldatzen trebatzeko aukera.

Horretaz gain, epaimahaikideek idatzitako txostena irakurri dutenez, ahozko aurkezpena ezin da errepikapen hutsa edo idatzitako testuaren laburpen soila izan; aitzitik, *zerbait eraikitzen edo berregiten saiatu* behar zara.

11. TAULA. AHOZKO AURKEZPENAREN PRESTATZEKO URRATSAK

1. Esan nahi duzunaren zirriborroa idatzi, eta aurkezpenaren gidoia prestatu.
2. Gidoi horri jarraituz, aurkezpenerako erabiliko d(it)uzun euskarria(k) taxutu. Diapositibak erabiltzea ez da derrigorrezkoa, baina lagungarria izan daiteke.
3. Sortutako materiala tutorearekin egiaztatu.
4. Tutoreak proposatutako aldaketak egin, eta, erlojua aurrean duzula, hasi saio-probak egiten!

Iturria: Norberak eginda.

IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEN DIREN GAITASUNAK

- Era askotako entzuleei (gaian aditutakoak izan ala ez) lana eta ikerketa-prozesuan bereganatutako ezagutzak (ideiak, metodologiak, arazoak edo konponbideak) eta landutako trebeziak modu argi, zehatz eta laburrean ahoz komunikatzea.
- Ahozko aurkezpena egiteko baliabide egokiak hautatzea edo sortzea, eta ezarritako baldintzetara moldatzea (denbora-mugetara egokitzea, eta abar).
- Epaimahaiak planteatutako galderak ulertzea eta haiei erantzutea; egingo zaizkizun ekarpenen aurrean jarrera irekia eta harkorra izatea.
- Aurkezpenean zehar heldutasuna eta sendotasuna erakustea.

Ahozko aurkezpenari begira zenbait aholku

Dagoeneko aipatu dugun arren, lehenengo gomendioa ekitaldiari dagokion garrantzia aitortzea litzateke. Gogoratu: *ez da tramite bat, baina ezta epaiketa bat ere*. Zu zara egin duzun ikerketa hoberen ezagutzen duen pertsona, eta horixe helarazi behar diezu epaimahaikideei, modu egokian nahiz hala-moduz egindakoen jabe zarela.

Horretarako, **gidoi bat prestatzea** gomendatzen dizugu, ez denbora osoan horri begira egoteko, baizik eta urduri jarriko bazina edo momenturen batean galdu, heldulekuren bat izan dezazun.

Euskarriei dagokienez, hauexek ere heldulekuak ditugu, ez aurkezpenaren muina. Hau da, euskarria ezin zaio gailendu esaten dugunari, eta ez da komenigarria diapositibetan (euskarririk zabalduena) ahoz adierazten duguna baino informazio gehiago jasotzea ere.

Diapositibak erabiltzekotan, ez gehiegi bete, eta ondo aukeratu letra mota eta tamaina, diapositibetan erabiliko dituzun koloreak (hondoarena, letrena..). Irakurtzeko zaila den zerbaitek, lagundu beharrean, zure aurkezpena oztopatuko baitu. Bestalde, irudiak ere oso adierazgarriak dira, eta askotan hitzek baino eduki gehiago helaraz dezakete. Laburbilduz, diapositibek erakargarriak izan behar dute, euskarrien formatua zaindu egin behar da, eta ez da komeni 10/12 diapositiba baino gehiago prestatzea (diapositiba bat minutu bakoitzeko kalkulu egokia delakoan baikaude).

Ahozko zein gorputzeko adierazpena zaindu. Hizkuntza egokia eta ez-errepikakorra erabili, eta emanaldi batean zaudela gogoratu; hau da, epaimahaikideei begietara begiratu, eta, arren, bizkarra ez erakutsi. Horretaz gain, aurkezpenaren erritmoa

mantentzea garrantzitsua da, horren bidez epaimahaikideen arreta mantentzea lortuko baituzu. Adierazi dugun moduan, gure ustez hori guztia lortzeko bidea saio-probak egitea da, ahal dela publikoaren aurrean.

Amaitzeko, zure txanda bukatu eta gero, epaimahaikideek hartuko dute hitza, eta zure lanaren balorazioa jakinaraziko dizute, eta, orobat, galderaren bat ere egin diezazukete. Galderei erantzutea ezinbestekoa ez bada ere, erantzun egokiek zure alde jokatuko dute. Beraz, ziur bazaude, galderei laburki erantzun, eta, bestela, ekarpenak eskertu eta egindako galderei buruz pentsatuko duzula adierazi. **Jarrera irekia eta harkorra izatea oso garrantzitsua da**, eta, horretarako, epaimahaikideak hitz egiten ari diren bitartean oharrak hartzea gomendatzen dizugu.

Burua beste gauza batzuetan duzula dakigun arren, azken gomendio bat egin nahi dizugu: ez ahaztu ura eta erlojua (sakelakorik ez!), aurkezpenarako prestatu duzun dokumentua inprimatuta eraman, eta boligrafoa eta paper zuriak eskura izan. Zorte on!!

Tutoretza-lanak errazteko aholkuak

- 1. Ahozko aurkezpenaren garrantzia azpimarratzea, eta, era berean, ikasleari lasaitasuna helaraztea (epaiketaren ideia baztertuz, eta sor daitezkeen galderei buruz hitz eginez, besteak beste).**
- 2. Denbora errespetatzearen zein euskarrien egokitasunaren garrantziaz ohartaraztea.**
- 3. Saio-probak egiteko gomendioa ematea.**
- 4. Lan akademikoan kritikak jasotzea hobekuntzarako bidea dela ulertaraztea.**

ERANSKINAK



1. ERANSKINA: ORIGINALTASUN KONPROMISOAREN AGIRIA



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ORIGINALTASUN KONPROMISOA

Mesedez, irakurri jarraian agertzen den informazioa eta sinatu bukaeran.

1. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, plagioa da “besterenak diren obren kopia edo imitazioa, norberak eginak balira bezala azaltzeko egiten dena.”
2. Zehazkiago, plagiotzat hartzen dira honako ekintza hauek:
 1. Inoren lana entregatzea norberarena balitz bezala.
 2. Testu zatiak osorik eta aldaketarik egin gabe kopiatzea.
 3. Testu zatiak kopiatzea hitz batzuk aldatuta. Horrek barne hartzen ditu beste hizkuntza batetik GRALaren hizkuntzara egindako testu zatien itzulpenak.
 4. Iturri desberdinak konbinatzea, inolako erreferentziarik eman gabe.
 5. Lana iturri desberdinen birformulazio bat izatea.
 6. Norberak alde aurretik egindako lana berrerabiltzea, eta, ondorioz, originaltasun baldintza urratzea.
 7. Egilea aipatzea baina iturria aurkitzeko beharrezkoak diren datu guztiak eman gabe.
 8. Aipatutako iturriak aurkitu ezin izatea, iturriok okerrak direlako.
 9. Egilea aipatzea baina hitzez hitzezko aipamena kaxotxen artean jarri gabe, inorena den interpretazio bat norberarena balitz bezala aurkeztuta.
 10. Aipamenak eta erreferentziak zuzenak izatea, baina horiek artikulua zatirik handiena hartzea.
 11. Egile baten hizkera sortzailea erabiltzea dagokion aitopenen egin gabe.
 12. Inoren ideiak norberarenak balira bezala aurkezteak.
 13. Beste egile baten arrazoiketari jarraitzea, jatorrizko artikuluan agertzen denaren antzera.
 14. Beste azterlan batzuetako datuak plagiitzeak.
3. “La necesidad de citar no se ciñe en exclusiva a los textos impresos sino también a otros medios, ya sean visuales u orales”²
4. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegiko 2. artikuluaekin bat, “Gradu Amaierako Lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar

¹ Morató, Yolanda. 2012. “Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES”. UPO INNOVA aldizkaria, I. bol.:361-368.

² Morató, op.cit., 2012, 363. or.

du (...)"

5. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko GRADUAREN IZENA Graduko GRALaren irakaskuntza gidak beren beregi jasotzen du honako hau: "Erabat debekatuta dago testuen zatiak hitzez hitz idaztea (izan liburuetakoak, aldizkari zientifikoetako artikuluetakoak, tesietakoak, web orrietakoak, etab.), baldin eta ez bada behar bezala aipatzen testuan alde aurretik eta ez bada identifikatzen berau lortzen den iturria. Bestela, plagiotzat hartuko da eta lanak zero kalifikazioa izango du."

Nik, IZEN-ABIZENAK(e)k, ZENBAKIA NAN zenbakidunak, aurreko paragrafoetan jasotakoa irakurri eta ulertu dut.

Hori kontuan izanda, honako hau adierazten dut:

Nire Gradu Amaierako Lana, "IZENBURUA" izenburua duena eta ZUZENDARIAREN IZEN-ABIZENAK(e)k zuzenduta dagoena, originala da.

Eta behar den lekuan jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Leioa, 2016ko xxxxaren xxxxa

Stua.:

2. ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA-GESTOREAK

Bibliografia-gestoreen bitartez gure bibliografiaren datu-base pertsonalizatua sor dezakegu. Beraz, GRALa idazten ari garenean oso erabilgarriak dira:

- **Bibliografia sortu eta kudeatzeko.**
- **Bibliografia-erreferentziak eta -aipuak automatikoki txertatzeko eta eguneratzeko.**
- **Bukaerako bibliografia modu egokian osatzeko.**

Bestalde, bibliografia-gestoreek hainbat estilo erabiltzeko eta erreferentziak inportatzeko eta esportatzeko aukera eskaintzen digute. Datu-baseak diren heinean, erreferentzien informazioa antolatze eta modu erraz batean bilatzeko aukera ere ematen digute.

Hona hemen gestore gehien erabiltzen diren atalak:

BIBLIOGRAFIA-GESTOREEN OHIKO ATALAK

- **Dokumentu mota.**
- **Izenburua.**
- **Egilea.**
- **Laburpena.**
- **Urtea.**
- **Dokumentuari buruzko informazioa (dokumentuaren arabera).**
- **Hizkuntza.**
- **ISSN/ISBN.**
- **Dokumentua sailkatzeko eta aurkitzeko baliagarriak izan daitezkeen beste ezaugarri batzuk.**

Iturria: Norberak eginda.



Horretaz gain, gure oharrak eta markak gehitzeko aukera dugu. Bukatzeko, beste dokumentu batzuekiko loturak ere sor ditzakegu.

Gure fakultateko gidaren arabera, "une honetan, Gizarte Zientzietan gehien erabiltzen direnak [Refworks](#), [Ednote](#), [Zotero](#), eta, berrikiago, [Mendeley](#) dira. Zer gestore erabiliko

dugun erabakitzerakoan, garrantzitsua da sarbidea eta erabiltzeko erraztasunak aintzat hartzea” (Martínez Palacios eta Legarreta Iza, 2017: 19).

Bibliografia-gestoreen inguruko informazioa gehiago [Gizarte eta komunikazio zientzietan bibliografia eta aipamenen kudeaketarako gidan](#) eskuragai.

3. ERANSKINA: GRALaren ZUZENDARIAREN TXOSTENAREN EREDUA

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN</p>	
<p>ZUZENDARIAREN TXOSTENA INFORME DEL/A DIRECTOR/A</p>		
<p>IKASLEAREN DATUAK - DATOS DEL ALUMNO/A</p>		
<p>Izen Abizenak: <i>Nombre y Apellidos:</i></p>	<p>NAN: DNI:</p>	
<p>Gradua: <i>Grado:</i></p>		
<p>LANAREN DATUAK - DATOS DEL TRABAJO</p>		
<p>Izenburua: <i>Título:</i></p>		
<p>Zuzendaria: <i>Director:</i></p>		
<p>Txostena: <i>Informe:</i></p>		
<p>Tutoretzen balorazioa/Valoración de las Tutorías</p>		
<p>Lanaren alderdi azpimarragarriak/Aspectos destacables del Trabajo</p>		

Hobetzeko alderdiak/Aspectos a mejorar

Beharrezkoak diren oharrak idatziko dira.

Se harán constar cuantas observaciones se consideren relevantes.

Leioa, _____(e)ko _____ren _____(e)an

Leioa, _____de _____de _____

4. ERANSKINA: GRAL-EN EBALUAZIO TXOSTENEN EREDUA SOZIOLOGIA GRADUAN

Ikaslearen izen-abizenak	
Ikaslearen NAN zenbakia	
Gradua	
GRALaren izenburua	
GRALaren tutorea	
Defentsa-eguna	
Epai-mahaikideak	

EBALUAZIO- IRIZPIDE ORIENTAGARRIAK SOZIOLOGIA GRADUAN³

EBALUATUTAKO ALDERDIAK	PONDERAZIOA (%)	EMAITZA
1. Lanaren prozesua (Zuzendariaren txostena)	(%25a)	
2. Idatzizko lana	(%50a)	
3. Ahozko defentsa	(%25a)	
AZKEN EMAITZA:		


³ Ebaluazio txostena prestatzeko 2014-2015 ikasturteko Soziologia Gradu Gradu Amaierako Lanaren irakaskuntza gidan oinarritu gara.

EBALUAZIO- GIDA ORIENTAGARRIA

1. ZUZENDARIAREN TXOSTENA ⁴	
Ebaluatutako alderdiak	Emitza
Lanaren interesa, konplexutasuna eta originaltasuna.	
Ikaslearen arduraldia eta inplikazioa.	
Epeak betetzea Gradu Amaierako Lana egitean.	

2. IDATZIZKO LANA		Ponderazioa (azken emaitzaren %50a)
EBALUATZEKO ALDERDIA	PONDERAZIOA	AZKEN EMAITZA
2.1. Ikerketa objektuaren aukeraketa eta justifikazioa.	(%10)	
2.2. Arazoaren eta esparru teorikoaren planteamendua.	(%10)	
2.3. Diseinu metodologikoa.	(%10)	
2.4. Emaitzak eta datuen analisisa eta ondorioak.	(%10)	
2.5. Idatziaren kalitatea.	(%10)	
IDATZIZKO LANAREN GAINEKO IRUZKINAK (Beharrezkoak diren oharrak idatziko dira)		

⁴ GRALaren zuzendariaren txostenaren eredu osatua 3. Eranskinean jaso dugu.



3. AHOZKO DEFENTSA		Ponderazioa (azken emaitzaren %25a)
EBALUATZEKO ALDERDIA	PONDERAZIOA	AZKEN EMAITZA
<p>3.1. Aurkezpenean erabilitako baliabideen kalitatearen balorazioa:</p> <p>3.1.1. Mezua indartzen du, ahozko eta keinu komunikazioa era egokian erabiliz entzuleen arreta mantentzea lortzen du : entzuleak begiratzen ditu, bolumena egoki erabiltzen du, tonua modulatu du, keinu bidez mezua indartzen du, hitzaldian ez du makulu-hitzik erabiltzen, etabar. Laburbilduz, segurtasuna, trebetasuna eta interesa agertzen du.</p> <p>3.1.2. Baliabideak bere aurkezpenaren izaerari egokitzen dira, era honetara erabiltzen dituen elementuak (irudiak, adibideak, aipamen testualak etabar) egokiak eta sortzaileak izateaz gain entzulearen arreta jasotzeko eta ulertzeko baliogarriak dira.</p>	<p>(%10)</p>	
<p>3.2. Adierazpen-argitasunaren balorazioa.</p> <p>3.2.1. Gradu Amaierako Lanaren ekarpenak era logiko, sintetiko eta ordenatuan argudiatzen ditu.</p> <p>3.2.2. Ekarpenen garrantziaren arabera antolatzen du aurkezpen denbora.</p> <p>3.2.3. Egindako lanaren jarraipena izan daitezkeen erabili gabeko elementuak zehazten ditu.</p> <p>3.2.4. Lanaren edukiak azaltzeko era argia eta laburra da , eta erabilitako terminologia egokia.</p>	<p>(%10)</p>	
<p>3.3. Planteatutako galderak ulertzeko eta erantzuteko gaitasunaren balorazioa.</p> <p>3.3.1. Harkor dago eta egindako azalpenen aurrean interesa agertzen du atentzioz entzunez.</p> <p>3.3.2. Egiten zaizkion galderei logikaz, erraztasunez eta abileziak erantzuten die.</p>	<p>(%5)</p>	

AHOZKO DEFENTSAREN GAINeko IRUZKINAK
(Beharrezkoak diren oharra idatziko dira)

5. ERANSKINA: GRAL-EN EBALUAZIO TXOSTENEN EREDUAK. IKERKETA SOZIAL APLIKATUAK SOZIOLOGIA GRADUAN ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIETAN

IKERKETA-LANAK ETA ESKU-HARTZERAKO PROIEKTU EDO POLITIKEN DISEINUA SOZIOLOGIA ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIETAKO GRADUAN

EPAI-MAHAIKIDEEN TXOSTEN-EREDUA⁵

Izen-abizenak	
Gradua	
GRALaren izenburua	
GRALaren tutorea	
Defentsa-eguna	
Epai-mahaikideak	

Ebaluazio irizpideak:

1. Nabarmenki eskas	3-4 Gutxiegi/eskas	5-6 Nahiko/aski	7-8 Egoki/desiragarri	9-10 Bikain
----------------------------------	------------------------------	---------------------------	---------------------------------	-----------------------

GRAL-AREN EPAIMAHAIAREN KALIFIKAZIOA (laburpena)

EBALUATUTAKO ALDERDIAK	PONDERAZIOA (%)	EMAITZA
1. LANAREN EDUKIAK		
2. LANAREN ALDERDI FORMALAK		
3. LANAREN DEFENTSA		
Epai-mahaiaren azken emaitza:		

AZKEN EMAITZA

	PONDERAZIOA (%)	EMAITZA
EPAIMAHAIAREN KALIFIKAZIOA		
TUTOREAREN KALIFIKAZIOA		
Azken emaitza:		

⁵ Ebaluazio txosten-eredua prestatzeko Soziologia 2 Saileko GRALen ebaluazio errubrikan oinarritu gara.

1. LANAREN EDUKIA		Ponderazioa (azken emaitzaren %)
GAITASUNA	ALDAGAIA	Puntuazioa (0-10)
1.1. Ikerketa-proiektuaren helburuak zehazki adierazteko...	Ikerketa-galderen, -helburuen eta (halakorik izatekotan) -hipotesien azalpen egoki eta ulergarria planteatzea.	
1.2. Gaurkotasuna duten eta egokiak diren bibliografia eta iturri sekundarioak bilatzeko eta egokiro erabiltzeko...	Gaiaren egoera laburbiltzen duen testuinguru egoki bat garatzea.	
1.3. Estrategia metodologikoa diseinatzeko...	Planteamendu metodologikoa helburuetarako egokia izatea; originaltasuna.	
(Estrategia horrek, lanaren osotasuna eta koherentzia ziurtatzeaz gain, ikerketaren mugak ere zehaztu beharko ditu)	Ikuspegi metodologikoaren, erabilitako tekniken eta gauzatutako azterketaren deskribapena.	
1.4. Iturri primario zein sekundarioak erabiliz, datu berriak sortu eta aztertze...	Sortutako informazio berria edota emaitzak esanguratsuak eta fidagarriak dira, eta, era berean, haien deskribapena/laburpena bat dator erabilitako metodologiarekin.	
1.5. Lortutako emaitzak aztertze eta irakurtze...	Informazioaren eragin akademiko, sozial edo politikoaren inguruko hausnarketa egokia eta etorkizuneko ikerketa-lerroen deskribapena.	
LANAREN EDUKIEN GAINEKO IRUZKINAK (Beharrezkoak diren oharrak idatziko dira)		

2. LANAREN ALDERDI FORMALAK		PONDERAZIOA (azken emaitzaren %)
GAITASUNA	ALDAGAIA	Puntuazioa (0-10)
2.1. Lanaren atalak labur eta zorrotz egituratzeko...	Kapitulua zein (halakorik izatekotan) eranskinak modu logiko eta ordenatuan antolatzea.	
2.2. Idatzizko lan akademikoak bete beharreko arauetara egokitzeko...	Testuan zehar, erreferentzia bibliografikoak aipatzeko sistema sendoa erabiltzea, sistema horren eta bukaeran erantsitako bibliografiaren artean koherentzia egotea, eta azken hori modu zuzenean jasotzea (APA eta abar).	
2.3. Ideiak modu zehatz eta argian aurkezteko...	Ulegarria den testu bat garatzeko hiztegi zehatza aukeratzea eta modu koherentean erabiltzea.	
	Gramatikalki zein ortografikoki zuzena den testu bat aurkeztea	
2.4. Eskemak, taulak, irudiak, argazkiak edo informazioa sortzean erabilitako edozein material behar bezala erabiltzeko...	Eskemak, irudiak, argazkiak edo bestelako materialen hautaketa egokia egitea, ikerketaren helburuekin bat etorriz.	
	Erabilitako materialen iturri edota egileen berri jasotzea.	
LANAREN ALDERDI FORMALAREN GAINEKO IRUZKINAK (Beharrezkoak diren oharrak idatziko dira)		

3. LANAREN DEFENTSA		PONDERAZIOA (azken emaitzaren %)
GAITASUNA	ALDAGAIA	Puntuazioa (0-10)
3.1. Edukien azalpen egoki eta laburtua garatzeko...	Adierazpen-argitasuna.	
3.2. Baliabide egokiak erabiliz, aurkezpen formala jorrazteko...	Aurkezpenean erabilitako baliabide sortaile zein teknikoen kalitatea, eta ezarritako baldintzetara moldatu izana (denbora eta abar).	
3.3. Eztabaida eta debate akademikorako...	Epaimahaiak planteatutako galderak ulertzeko eta erantzuteko gaitasunaren balioespena.	
<p>LANAREN DEFENTSAREN GAINEKO IRUZKINAK: (Beharrezkoak diren oharrak idatziko dira)</p>		

**BIBLIOGRAFIA
ETA
EUSKARRIAK**



IKASMATERIALA PRESTATZEKO ERABILITAKO ERREFERENTZIAK

Anduiza, Eva eta Méndez, Mónica. “Guía práctica 1. Elaboración de trabajos”, Murtziako Unibertsitatea, eskuragarri hemen: <http://www.um.es/cpaum/files/recursos/1-F4cc9345d11288254557-rec-1-1.pdf> [Kontsulta eguna: 2017/07/19].

Abad Miguélez, Begoña (2016). “Investigación social cualitativa y dilemas éticos: de la ética vacía a la ética situada”. *Empiria*, 34, 101-120.

Apodaka, Marije eta Apodaka, Eduardo (2008). *UPV/EHU-n euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida*, eskuragarri hemen: <http://www.ehu.eus/documents/2007376/0/Gida> [Kontsulta eguna: 2017/06/05].

BOE (2011). *Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior*, eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-13317> [Kontsulta eguna: 2016/06/11].

González, Julia eta Wagenaar, Robert (2006). *Tuning Educational Structures in Europe. Informe Final: Fase 2. La contribución de las universidades al proceso de Bolonia*. Bilbao: Universidad de Deusto.

Galardi Fernandez de Agirre, Maider (2017). *Ernai gazte antolakundearen urrats feminista: Aldaketaren nolakotasuna aztertzen*. Gradu Amaierako Lana: UPV/EHU.

Morató, Yolanda (2012). “Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES”. *UPO INNOVA: Revista de Innovación Docente*, 1, 361-368.

Martínez Palacios, Jone eta Legarreta Iza, Matxalen (2017). *Gizarte Eta Komunikazioaren Zientzietan bibliografia eta aipua txertatzeko moduari buruzko gidaliburua*. Leioa:UPV/EHU.

Robles Egozkue, Iruñe (2014). *Representaciones sobre cuidar/curar de las mujeres baserritarras de Bizkaia*. Master Amaierako Lana: UPV/EHU.

Rodríguez, M^a Luisa eta Llanes, Juan (koord.) (2013). *Cómo elaborar, tutorizar y evaluar un trabajo de fin de máster*. Barcelona: AQU Catalunya.

Sautu, Ruth, et al. (2005). *Manual de metodología: construcción del marco teórico, formulación de los objetivos y elección de la metodología*. Buenos Aires: CLACSO-Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales.

Solbes Lanz, Dornaku (2016). *Amatasuna (eza) 1946-81 belaunaldietan*. Gradu Amaierako Lana: UPV/EHU.

GRAL-EN IRAKASKUNTZA GIDAK ETA ARAUTEGIAK

- Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia: <http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduakoikasketak/gradu-amaierako-lana-egin-eta-defendatzeari-buruzko-arautegia>
- Soziologia gradua. Ikasturtea 2014-2015. Gradu Amaierako Lanaren irakaskuntza gida. 2016eko urriaren 2a.
- Soziologia gradua. Ikasturtea 2016-2017 Gradu Amaierako Lanaren irakaskuntza gida. 2016eko ekaina. Hemen: <http://www.ehu.eus/documents/1760370/5716694/GAL+GIDA+SOZIOLOGIA+2016-17+eusk.pdf>
- Euskara teknikoaren erabiltzeko gidak. Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza <http://www.ehu.eus/eu/web/euskara>

**EGILEEI
BURUZKO
OHARRA**





[Oihane Garcia](#) naiz, Soziologia 2 Saileko irakasle atxikia. Nire ibilbide akademiko eta profesional gehiena Soziologiaren arloan egin dut; Soziologian lizentziaduna eta doktorea naiz, eta, 2010az geroztik, Soziologia 2 Saileko irakaslea eta ikertzailea. Teoria kritikoak, eraldaketarako prozesu sozialak, ingurumen-hezkuntza eta ikerketa aplikatuak dira nire lan-esparru nagusiak. Aurretik, identitate kolektiboko, gazteriako, generoko eta inklusio sozialeko gaitan ere ibilia naiz, Koheslan Kohesio Sozialerako Azterketa Taldeko eta [FARAPI](#) Antropologia Aplikatua Aholkularitzako ikertzaile gisa. Irakaskuntzaren arloan, Soziologia, Geografia eta Lurralde Antolamendua eta Ingurumen Zientziak graduetan irakasle jarduten naiz, eta [Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan Unibertsitate Masterra](#)ren Batzorde Akademikoko kidea nauzue. Master Bukaerako Lanak eta Soziologiako nahiz Ingurumen Zientzietako GRALak ugari gidatu eta ebaluatu ditut. Aurkeztutako lan gehientsuenak euskaraz izan dira.

[Marta Luxán Serrano](#) nauzue. Soziologia ikasi nuen Gizarte eta Komunikazioa Zientzien Fakultatean, eta, ondoren, Bartzelonara joan nintzen, Centre d'Estudis Demogràfics (UAB) delakora. 1993-2000 tartean ikerlana horretan aritu nintzen, ikerketa-beka eta kontratuekin, bai eta 2000. urtean doktorego-tesia aurkeztu ere. 2001. urtean UPV/EHUr bueltatu nintzen doktorego ondorengo bekarekin, eta ordutik bertan ibili naiz lanean. Egun, [Soziologia 2 Saileko](#) irakasle agregatua eta [Ikasketa Feminista eta Generoko Masterraren](#) Batzorde Akademikoko kidea nauzue, baita [SIMReF](#) (Diziplina arteko metodologia feminista mintegia) eta AFIT (Antropologia Feminista Ikerketa Taldea) taldeetako ikertzailea. Gradu eta Master Amaierako Lanei dagokienez, eskarmentu handia dut tutore eta epaimahaikide gisa. Gainera, Soziologian ez ezik, Komunikazio Zientzietako eta Gizarte Antropologiako lanen zuzendaria ere izan naiz.

